


# Luma berrien eleak

idazle berrien sorlanak, iritzi eta gogoetak, narrazioak, antzerkiak, poesiak...

2013ko ekaina  
www.idiztien.com  
11. zb. 36



Pako Aristi



# Idazle Eskola

# Idazle Eskola

## Idazketa Literarioa eta idazketa profesionala

### Hezkuntza Sailak Homologatua



# GRADUONDOKOA

Eskola presentzialak (larunbatetan) eta telematikoak



#### MODULOAK

Ipuinak idazten ikasi. Edorta Jimenez  
Iritzi artikulua idazten ikasi. Pako Aristi  
Poesia idazten ikasi. Tere Irastortza  
Ozenki irakurri. Itziar Gomez  
Antzerkia idazten ikasi. Xabi Lopez

#### MINTEGIAK

Idazleak Irakurle  
Idatzi eta zuzendu (Ikasle-ohientzat)



#### IDAZKARITZA:

UNED. San Martin Agirre plaza, 4. 20570 BERGARA

ASMIOZ Fundazioa. Asuncion Etxea.  
Joseba Elozegi alkatearen hiribidea, 275.20015 DONOSTIA

ASMOZ: 943 2212369

E-POSTA:  
idazleeskola@idazten.com  
arse@asmoz.org

#### INFORMAZIOA:

www.idazten.com  
<http://eskola.asmoz.org>



Mugikorra: 639456204

Antolatzailea:

Elkarlanean:



Babesleak:



# aurkibidea

ENTZUNKETAK ETA  
IRAKURKETAK

[www.idazten.com](http://www.idazten.com)

## AZALA

Arazkia: Miryan Irastorza  
Idazlea: Pako Aristi  
Azaleko liburua: *Independenziaren paperak, Plazer bat izan duk, Benito!*

## IDAZLE ESKOLA

Zuzendaria: Tere Irastortza

## IDAZKUNTZA KONTSEILUA

1. eta 2. mailako ikasleak

## KOORDINAZIOA

Alaitz Andreu  
Miryan Irastorza

## DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Miryan Irastorza  
Alaitz Andreu

## INPRIMAKETA

GERTU Inprimategia

L.G. SS-803/04

## IRITZI ETA GOGOETAK

Egunerokoaz solasa – Olatz Mitxelena .....	4
Bakarrizketan - Amaia Artola Echeverria .....	4-5
Zuri – Miron U sandizaga .....	5
Ilargiak hitz egin zuenekoan - Olatz Mitxelena .....	6
Beti berandu - Amaia Artola Echeverria .....	7
Hit/en sukaldari – Ruth Martin Apezetxea .....	7

## NARRAZIOA

Egun arrunta edo... - Adriano De Mata .....	8-9
Bihotzeko adiskide – Ana Moñux .....	9
Nire Maitaleen Historiaren Hastapenak – Alaitz Andreu .....	10-11
Eder zaude, ama - Araitz Jauregi .....	11
1 lot/ala bero – Zuriñ Zubillaga .....	12
Kasandraren ametsa – Adriano De Mata .....	12-14
Gereziondoa loretan - Encritz Iraola Odriozola .....	14-15
Almoadapera sart/en zenuen eskua – 2. mailako ikasleak .....	16-17
Koldarkeriari musu – Miryan Irastorza .....	18

## ELKARREKIN HIZKETAN

Esazu hitz bat eta sendatuko naiz- Ruth Martin Apezetxea .....	19-20
Ezer ez, sin mas – Amaia Artola Echeverria .....	20-21
Zorionak zuri - Idoia Gereñu .....	21-22

## EI KARRIZKETA

Pako Aristiri elkarrizketa - Miryan Irastorza eta Idoia Gereñu .....	23-28
---	-------

## POESIA

Poema eta aforismoak – Miren Usandizaga .....	29
Lau poema – Idoia Gereñu .....	30-31
Amesgaiztoa - Carmen Valois .....	32
Zuri, niri - Haizea Galarraga .....	33
Lau poema – Unai Baztarrika .....	34
Estazioko begiradak – Miryan Irastorza .....	36
Badator joatca nahi dudanean Alaitz Andreu .....	37
Ez beldurrik izan - Adriano De Mata .....	38
Esan – Adriano De Mata .....	38

## IRAKURKETAK

Ultramorea – Alaitz Andreu .....	39
Eskarmentuaren paperak – Miren Usandizaga .....	40

## GURE ARRASTOA

NOR PA NOR .....	41-43
NOR PA NOR .....	44-46

 wondershare™

 EUSKO JAURLARITZA  
 GOBIERNO VASCO

PDF Editor

## Egunerokoaz solasa

"- Gertatu diren gauzak kazetetan diatozak –erantzun zuen idazleak-, gainera errealitatea bizi egiten den ez duk hainbeste kondatu beharrik.  
- Orduan, errealitatea azaldu nahi ez baduk, zer nahi duk nik? –galdetu zuen itzalak"

J. Sarrionandia, Narrrazioak: *Itzalarekin solasa*

Atsedena dia aprobe txatuz bulego ondoko tabernara inguratu zen Mikelekin kafe hat hartzera. Kazetariak ziren biak eta, ia jende gehiena bezala, laneko kontuez hizketan aritzen ziren lanetik atera ondoren ere, lanean nahikoa denbora pasatzen zutela eta laneko kontuek lantokian gelditu behar zutela pentsatuta ere. Artikulu batekin bueltaka zebiltzan, nondik heldu, zer forma eman,

zer kontatu eta zer utzi alde batera. Idazle ospetsu baten egunerokoak argitaratu berri zituen argialetxe batek, eta horien berri emanez, egunerokoen inguruko hausnarketa egin nahi zuten artikuluan. Idazlearen lana hobeto ulertzen laguntzen al zuten eguneroko horiek? Egunerokoan idatzitakoaren arabera ulertu behar ziren bere nobeletako pertsonaiak eta pertsonaien bizitzak? Zer ekarpen egiten zion. cdo egin behar zion, idazlearen egunerokoak bere obrari? Idazlea al zen egunerokoan idazten zuena? Edo alde batera uzten zituen irudimena eta lanerako gainerako tresnak –lanerako tresnak balira bezala- egunerokoan idazten zuenean? Zein sinesgarritasun zuen egunerokoan kontatutakoak? Errealitatearen egiazko kontaketa al zen? Ala bazuen fikzioaren trazarik? Fikzioak czin al du egiazkoa izan? Fikzioak ez al du errealitatearen berri ematen? Ezin al daiteke faltsua izan egunerokoan datorren kontaketa ez-fikziozkoa? Ba al dago horrelakorik? Errealitatea fikzioarekin zerikusirik ez duen zerbait al da? E la fikzioa errealitatearekin zerikusirik ez duena? Non bukatzen da bata eta non hasi bestea? Fikziozko errealitatearen zein kontakizun gordetzen du egunerokoak? Errealitatezko fikzioaren zein datu? Noren kontaktarekin bat egiten du errealitateak? Non daude errealitatearen gidioa eta gidaliburua? Zenbateraino bat egiten dute eta zenbateraino dira ezberdin egunerokoan kontatutakoa eta errealitatea, fikziozko bi begi sentikorrez behatua?

Kazetarien atsedena dia aspaldi bukatu zen. baina galderek, nolabait, bizitza propioa hartu zuten, fikziozko errealitate propioa.



*Olatz Mitxelena*

## Bakarrizketan

Urduri nago, ezin dut besterik esan. Hamaika aldiz aterata ere oholntza gainera beti sortzen zait barruan urduritasuna, lehen aldiaren beldurra, hanka sartzearen beldurra, ezinegona, kezka, tximeleta eta inurriak gorputzean barrena... Beti, beti da berdina eta hainbestetan errepikatzen den zerbaitetara ohituta egon beharko nuke baina ez. ez naiz ohitzen eta urduri nago.

Gaurkoan, dena den, badut arrazoirik urduri egoteko. Haurrak izango ditut ikusle, bai, munstro txiki horiek. Aspertuta nengoen helduei zuzendutako saioak egiteaz, aspertuta tabernaz taberna, gaztetxez gaztetxe, aretoz areto ibiltzeaz, Aspertuta nire hitz-aspertuaz, aspertuta beti gauza berdina kontatzeaz eta are okerragoa dena, egun batean konturatu nintzen jendearenak telebistan entzuten diren latazko txalo eta barre algarak ziruditelat. Hori sentitu nuen egunean esan nuen "akabo, abentura hau iritsi duk amaierara eta asmazak beste zerbait bestela hireak egin dik!". Baina zer egin ordea? Zer asmatu? Ez nuen nire neurriko desafiorik topatzen.

Hemen nago, aurkitu dut nire mailako erronka. Helduengandik ihesi haurrengana jotzea erabaki dut. haurrekin ausartuko naiz bai, munstro txiki horiekin. Haurrek ez dakite disimulatzen helduek egiten duten bezala, haurrei gustatzen zaie edo ez zaie gustatzen. Haurrekin ez dut izango helduekin bezalako latazko txalo edo barre algararik, egingo dute edo ez dute egingo. Hau bai dela bene benetako erronka, haurrak nireganatzeko gai banaiz, orduantxe txikiek handi egingo

*Donostia, etxerako bidean.  
Hamahiru ditto bi milak etahamar lehenhilak.*

## Zuri:

Gaur osteguna da; zure eguna.

Zuretzat jasota izaten dut, beti, asteko egun hau, eta orain ez zaudela ere. gauza bera egiten jarraitzen dut... Zureak ziren. zureak **dira**.

Itzalik gabeko arratsaldea da gaur: iluna. Hotz egiten du eta euriak distiraz blaitzen ditu bazterrak. Etxerantz noa; trenez. I eihotik barren a begira nago. eta nire isla besterik ez dut ikusten. Ni neu. Orduan, eskuak elkar ukitu ditut, "hartan" egin genuen bezala: emeki-emeki elkar laztanduz... Begiak itxi ditut. Treneko hotsek eta a hihotz taupadek bat egin dute eta bat-batean, zure usaina aditu dut: bakea sentitu dut barru-barruan... Hasperen batek zabaldu dizkit begiak, eta malkoa isuri zait masailetik behera...

Trena geratu egin da. Geltoki bateau gaude. Ez da inor igo.

Martxan jarri da berriz; bagoaz...

Eskuak elkar laztandu ditut, berriz, zurekin egon nahi dut... Osteguna da.

Ez di/ut aitortu nahi zenbatetan hartu dudan telefonoa eskuan. zuri deitzeko. Mala ere, zu ezin ikusi horrexek jaten dit barrena! Aitortzen dut.

E la hori gertatzen denean: orduan, nire eskuek elkar ukitzen dute. "hartan" egin genuen bezala: emeki-emeki elkar laztanduz... Begiak itxi ditut.

Inguruko hotsek eta bihotz taupadek bat egin dute eta bat-batean, zure usaina aditzen dut; bakea sentitzen dut barru-barruan.

Hasperen batek zabaltzen dizkit begiak. eta malkoa isurtzen zait masailetik behera...

Zure eskua. Nire eskua.

Zure eskutik hasi nuen bizitza. Geure eskuak ukituaz amaitu genuen zurea.

Trena geratu da. Iritsi naiz herrira.

Datorren astera arte, amona!



*Miren Usandizaga*

naute. txikiakin haziko naiz.

Laster izango dira eguerdiko hamabiak. Kanpaiak laurdenak jotzen hasten direnean eta hamabiak lehen aldiz ematean argiak eta musika piztuko dira eta seguru nago gogotsu egongo direla zain ea teloi atzetik nor edo zer irtengo den ikusteko. Hamabi kanpaiak errepikatu ostean ni irtengo naiz salto batez eta salto horrekin atzean utziko ditut nire beldurrak. kezak, urduritasunak, ezinegona, tximeleta eta inurriak, latazko txalo eta barre algarak... Oholtza gainera salto egin eta oinak lurtean jartzean **haurren** begirada grinatsupean akabo horiek denak.

... hamar, hamaika, hamabi. "Eguerdion denoi!!"

Salto oholtzara eta haur pare bat besterik ez. Eskenatoki aurrean gizon eta emakume helduen koadrila pare bat edo hiru, ardo kopa bana eskuan hartuta zigarroa errez hizketan eta barre algaraka, arkupeko babesean, kanpoan euria ari duelako.

*Amaia Artola Echeverria*

## *Ilargiak hitz egirzuenekoa*

Leihoaren aurrean dago idazlea. Idazmahaia zahartuta dago, eta aulkiaren dekoratu itsusiaren alboan, ez du idazleak nahiko lukeen atmosfera artistikoa sortzen. Baina sor dezakeen estampa kutreaz arduratu gabe gogoz ari da lanean. Nobelaren bat ariko da idazten seguruenik. Ez daki zertarako, ezta zergatik ere. Behin leihoaren aurreko idazmahaia zaharrecan esertzeko ohitura hartu zuen eta geroztik orduak pasatzen ditu, begirada makur eta jarrera goibel, orri zuriak tintaz zikintzen. Ez da ohartzen idazten ducna ez dela batere erakargarria. Errepikakorra da eta izugarri aspergarria. Apenas aldatzen diren pertsonaiak liburu batetik bestera, eta gaiak ere ozta-ozta. Izenburuak bai. Izenburu ikusgarriak asmatzen ditu beti. Deigarriak. Baina izenburutik harago ezer gutxik pizten du kausalitatez agertutako irakurle defraudaluaren arreta. Leiho bera, ikuspegi bera, kale bera. Protagonistaren izena ere bera. Nietzscheren betiereko itzuleraren ideia gorpuztua izau zitekeen, halakorik ezagutuko balu. Baina estampa kutreko idazlearen idazketa ez da inongo pentsamenduren planteamendua; ez da behin hartu zuen mania obsesiboaren etengabeko birjaiotza baizik.

Hamabigarren orrialdetik hasi eta ehun eta berrogeita zazpigarrenera, dena da errepikapena, dena aurrerakoan berridaztua, dena hutsala. Leiho bera, ikuspegi bera, kale bera. Ahaztu zaio aurreko orrialdean gauza bera kontatu duela, aurreko kapituluan gai berari buruz aritu dela, aurreko nobelan pertsonaia berak deskribatu dituela. Ahaztu zaio lehenengo liburuaren frakaso, ahaztu zaio eguneroko kontaketa aspergarria, ahaztu zaio errepikakortasun jasangaitza. Ahaztu zaio ahaztu zaiola. Eta ez du oroitzen bere izena, eta ez du oroitzen atzoko eguna, ez du oroitzen izan zena, hart gaueko pelikula, bizilagunarekin cdukitako elkarrizketa, argazkiko neskaren irribarrea...



Leihoaren aurrean dago idazlea. Idazmahaia zahartuta dago, eta aulkiaren dekoratu itsusiaren alboan ez du idazleak nahiko lukeen atmosfera artistikoa sortzen. Baina sor dezakeen estampa kutreaz arduratu gabe gogoz ari da lanean. Nobelaren bat ariko da idazten seguruenik. Ez daki zerlarako, ezta zergatik ere.

*Olatz Mitxelena*

## Beti berandu

Alferrik da orain, beranduegi jada. Bat-batean, denek aitortzen dute egoeraren jakitun zirela, denek omen zekiten, denak konturatu omen ziren bazela zerbait baina joder, zergatik ez du inork ezer egin?

Orain alferrik da. Alferrik esango dute "zerbait antzeman nuen nik, nabaritzen zitzaion arraro zegoela, bere jarrera ez zen ohikoa, aurreko astean esan zidan mareoren batek email ziola, esan nion nik zaindu behar zuela, abisatu nion kontu egiteko bere buruari, bain larrituta ikusi nuen..". Zuri-zuri etorriko dira denak hori esanez orain, ez ordea behar zen momentuan.

"Neska gajoa, oso gaizki zebilen, oso gogorra zen berea hain gaztea izanda, hate zeuden lotuta eta orain, zer egingo du amak? Nola moldatuko ote da emakumea? Egoitzara eramango al dute? Alabak bezala ez du inork zainduko. Badu seme bat baina jakina da alabak bezala ez diola inork kontu egingo". Papaukeriak! Beti egon da gaizki eta inork ez du ikusi. Beti egin du garrasi, garrasi mutua eta inork ez du entzun. Beti saiatu da hitz egiten baina hitzak eztarrian korapilatzen zitzaizkion eta malkoak begietan. Inor ez zen konturatzeko, inork ez du entzun. inork ez du inoiz ezer ulertu. inork ez dio inoiz galdetu zer moduz dagoen. Baina noski, berari zegokion. Berari tokatu zitzaion antzetzeko paper nagusia, erruleta errusiarrean berari tokatu zitzaion saria. Alaba gazteena, etxean bizi zen, ama alarguna... boletu guztiak bereak ziren. Irentsi egin zituen boletuak, irlenki erruleta, irentsi zuen bere papera, bere gidoia. Jan. irentsi, barneratu, hori egin du beti eta puzten joan da. barrena lehertu zaion arte.

Orain bai, orain badirudi aspaldian egon behar zuela emakume horrek egoitza bateau. Aspaldi hartu behar zutela norbait etxean laguntzeko. Aspaldi antolatu behar zirela txandaka zaintzeko. Neska gaztea izanda here bizitza egiteko eskubidea omen zuen, harrapa/ak. Baina orain alferrik da ordea, orain ez du atzera bueltarik, beranduegi da. Jada ez du bere bizitzarik egingo, ez du inoiz egin, heriotza egiten joan delako.

Amaia Artola Echeverria

## \*\*\*\*\* H itzen sukaldari \*\*\*\*\*

Sutan da eltzea, sukaldaria lanean. Egosten jarri ditu jakiak. gaur okela eta barazkiak. Atzo arraina. herenegun untzia eta. bihar. biharkoa. ea nolakoa duen gogoia.

Eire/eta zaharrak ala berriak? Zergatik aukeratu? Biak. Nitrogeno hotza ala ikatz beroa? Iragana. oraina eta geroa, guztia da oparua.

Baditu platertxo, lapiko eta ontziak; baditu sardeska eta burruntzaliak. Halako jakia halako tresna, eta tresnarik ezean, behatza sartzen du eltzean.

Sutan da eltzea, sukaldaria lanean. Pintxo, errazio, menu eta ezkontzak. otordu luzeak eta motzak, batzuk gozoak besteak mingotsak. Tankera, zapora eta makina kolore, entzun, saltsak nola egiten duen "plup".

Sortu ala egokitu? Biak, zergatik hautatu? Teknika ala sena? Buruak gidatu eta bihotzak lantzen duena.

Baditu ausardia, jakingura eta kopeta. baditu sentimendu eta gogoetak. Halako gatazkak halako irtenbideak, eta irtenbiderik ezean beste jakiekin jarraitzen du lanean. Otorduaren ostean, izan denaren oroitzapena eta testamentua: paperean dotore idatzitako menua.

Sutan da eltzea. idazlea lanean. Egosten ipini ditu hitzak, gaur bi gazteren bizitzak. Atzo poesia, herenegun antzerkia eta bihar, biharkoa, ea nolakoa duen gogoia.

I storio zaharrak ala berriak? Zergatik aukeratu? Biak. Galdera ala erantzuna? Lehen datorkiona.

Baditu puntu, koma eta parentesiak, baditu hitz eta esaldiak. Halako ideia halako idazkera, eta zer esanik ezean, hitzekin jarduten da jolasean. Baditu bizipenak, bereak eta edonorenak. Baditu bidean oztopoak, bizitzak, hezkuntzak eta bere buruak jarritakoak. Baina, amaitutakoan, beste ezerk eskaintzen ez dion irrika eta bakea: horrela ulertzen du idaztea. Aske ote den galderari " ez - erantzuten dio berak-, ez baitut inoiz aski".

Ruth Martín Api ezetxea

## Egun arrunta edo...

Esnatu zenean ez zuen esnerik kaferako. Nola zen posible? Aurreko egunean litro bat esne erosi zuen. Baina aurreko eguna osteguna izan zenik ez zuen kontuan hartzen Enautek. Eta egunak gaua ekarri zuela; eta apiril hasierako ostegun gauak, Gasteizen, Lizarrako astelehen gauak cdo Baigorriko astearte gauak cz bezalakoak direla. Bestalde, ahaztua zuen unibertsitateko ikasle batekin biziz gero ez dela hain bitxia ostegun arratsaldean erositako esnea. eta jakiak oro har, ostiral goizean leku beretan cz egotea. Edo, are, inon ez cgotca.

Ostiral goiz eguzkitsua zuten (lasteizen. Txorien txio alaia sukaldeko leihotik sartzen zen. 1 lorrelakoetan umore onez esnatzen zen Eñaul. Oraingoan, ordea, esnerako kaferik cz izateak balizko umore on horri ez zion muturrik ere erakusten uzten. Dena den, kafea dagoeneko egina zuenez. edan egin zuen, hoztu baino lehen. Eñaut ez zegoen ohituta kafea hutsa edaten. ostera, eta ezin esan onik egin zionik. Garratzegi. Banana bat hartu zuen orduan fruta-pototik, kafearen garraztasuna arinduko ziolakoan. Hasieran on egin zion. Bigarren hozkadak ere, on. Hirugarrenaz c/in gauza bera esan, ordea. Ahoa lehortu, ahosabaia zartatu egin zion. Halako sentipen ezatsegina uxatzeko, eskura zeukan hori edan zuen, hots, kafea, Desiratutako efektua lortu zuela esango bagenu, ez geundeke errealtatetik urrun. Egia baita bananak eragindako lehorrea desagerrarazi ziola kafeak. Eztarri osoa erreta. baina. Ahoa lehor izatetik, sutan izatera. Hori konpondu nahian, beste banana-zati bat sartu zuen ahoan. Eta murtxikatu gabe irentsi. Guztiok dakigu, hala ere, tnurtxikatu gabe irentsitako horrek nekez egiten duela sabelerako bidea -amek ez dute, bada, gure haurtzaro osoa horrelakorik saiheslu nahian ematen!-. Eta. horrelakoclan. ona dela likidoren bat hartzea. Laguntzearen. Hala. esne-gabeziak eragindako bizkortasun-faltaren ondorioz, beste tragovka bat kafe edan zuen Enautek.

Berandu zen ordurako. Beraz, jantzi, eta autoko gillzak hartuta, kalera jaitsi zen. Gasteiz hiribidean barna zihoala. semaforo gorri batean gainti igaro zen. Egun hartan, azaltzen hasiko ez garen arrazoiak direla medio, polizia gertu zebilen. Eta, gauzak zer diren, Eñauten lege-hausteaz ohartu ziren; areago. neurriak hartu zituzten. Poliziakide biek. Batera. Ezohikoa guztiz herri honetan, baina bai, bi pertsonak ados jartzea lortu zuten. Eñaut geldiarazi eta isuna jarri zioten. Azkenean lantokira ere iritsi zen. 1 lasteko, nagusiak errieta egin zion berandu iristeagatik. Eana ondo egin zuenik ere. cziu esan: bezero batek ogi-barra eta egunkaria eskatu, eta Eñautek milorria eta aurreko asteko aldizkaria eskuratu; beste batek enpanada bi eskatu. berak esne botila eman; kilo erdi pasteltxo galdegin, muxika-zukuzko kaxa trukean. Hanka-sartze txiki batek. berez, ez luke arazorik eragingo. Hanka-sartze txikiaren ondoren egindako hanka-sartze txikien segidak eragin zuen bezeroen kexa-ilara. Eta kexa-ilara nagusiaren belarrietara iristeko bezain luzea izan zenean, hanka-sartze guztiak desagertu egin ziren. Eta hanka-sartzeak zer dira ba, energia baino? Ados, energia negatiboa, baina cnergia azken finean. Gauza jakina da, gainera, energia ez dela ez sortzen, cz deuseztatzen ere, baizik eta craldatu egiten dela. Hara nola azaltzen den hanka-sartze txiki bat, beste baten atzetik. eraldatzean, nagusiaren haserre bihurtu zela. Eta nagusiaren haserre, Eñauten kaleratze. Eñaut, beraz. apiril hasierako goiz. hartan, lanik gabe geratu zen. Amorruean amorruez. erretxinduta. ostiko itzela eman zion kaleko argi-poto bati; min hartu eta malkoren bat edo beste bota zuen. Aldi beretan, goizeko esne bako kafeak eragindako egarriak 10 zuen berriz. Ondorioa, negarria. Horrela urrun ez zela iritsiko konturatu, eta bere buruaren kontrola hartzea erabaki zuen: lan bila hasi zen. Hilabeteak joan, hilabeteak etorri. ordea, langabezia gorrian jarraitzen zuen, eta konturatzerako cgoera larria baino larriagoa zen. Beraz. gero eta gutxiago jaten hasi behar. Eta urdailaren kexak isilarazi nahian-edo. likido gehiago hartzen hasi zen. Ezagun dugunez, oso gogoko zuen esnea...

Egoera eramanezina zitzaioala-eta, ekintzetara jotzea erabaki, eta sindikatua sortu zuen: KEBE, Kafeari Ez, Bai Esnari. Luze barik taldetxo majoa izan zuen gidaritzapean. Hurrengo urratsa, manifestazioak antolatzea. Gero eta jendetsuagoak. gero eta sarriagoak. Munduan bakarrik ez zegoela ulertu zuen Enautek. Horren indar handia lortu zuen KEBEK. ezen azkenean aurkariak ere sortu baitzitzaizkion: KBEEB, Kafeari Bai, Esnari Ere Bai. Esan dezagun, baina, sorreratik bertatik arazo larri bati egin behar izan ziotela aurre sindikatu berrikoek: esanezintasunari. Izan gaitzen errealistak: manifestazioetan KEBE oihukatzearen edota KBEEB oihukatzearen artean aukeratzekotan... Baina, uneraren batean, herritarrek esanezintasunari muzin egin eta benetako mezuari begiratzean, KEBEren manifestazioak eta KBEERTcn antimanifestazioak gero eta oihartzun handiagoa izaten. Gauzak horrela, azkenean politikarien agendetan sartu ziren. Hasieran, herabe, agendetako azken postuetan; manifestazio-antimanifestazioen sona eta tentsioa aurrera joan ahala. ordea, gero eta leku nabarmenagoa izaten hasi ziren. Kanean, KEBEren babespean ikasle finak. ikasle alferrekin batera bizi ziren langileak, bihotzeko gaixo kronikoak, erretiratuak... KBEEBren izenean. aldiz. gaupasalariak, tabernariak. funtzionarioak eta EEKB -Esnari Ez, Kafeari Bai- sindikatu sortu berriaren sortzaileak, KBEEB sindikatuak zurrupatua, batetik bazkide gutxi izanik eragin txikikoak zirelako baina, batez ere. ezinezko i/cn esanezina aukeratzegatik. Kanean istilu larriak gertatzen hasiak ziren. Autobusetan. dendetan, igerilekuetan, etxeetako atarietan. semaforoen artean... etengabe eztabaida bera: KEBE ala KBEEB? Egun batetik aurrera ezinezkoa izan zen neutrala izatea. KEBE ala KBEEB, ez zegoen beste aukerarik. Alde edo aurka. Athletic edo Erreal bezala: erdibidekorik ez. Nazioartera ere hedatu zen auzia. Europa osoa krisian. Inoizko krisi politikorik larriena. Tentsioa, erantzun ausartak, neurri latzak. Manifestazioak edozeren aitzakian. Jendeak, azkenerako. cz zekien manifestazioak zeren alde cdo zeren aurkakoak ziren. Manifestazioetara joatea zen kontua.


ela ibili ziren luzaro, European gerra piztu arte. Ez zegoen besterik itxaroterik. Hiru. lau, host urteko gerra zital bi-



hozgabea. Elkar hiltzen jarraitzeko dirurik geratzen ez zitzairen arte iraun zuen. Egun bat gutxiago ere ez. Oraindik nola lortu zuen argi ez dagoen arren, Enautek bizirik iraun zuen. Baina zorionerako ala zoritxarrerako ote? Ematen baitzuen Eñautez gain inor gutxi geratu zela bizirik. Ez aitonen semeek, ez karlista eta liberalek, ez eta nazi eta anlinaziek ere, ordura arte inork ez zuen Europa horrelako egoera tamalgarrian utzi. Sekula ez.

Gerrak suntsilulako Gasteizko alde zaharreko kale-kantoi batean, urrunetik, Enautek bizitza-izpi meharra ikusi uste izan zuen. Lur gaineko azken izaki biziduna zela uste baitzuen, korrika abialu zitzaion. Arrazoi zuen, gizakia zen. Eñaut ez zegoen bakarrik munduan, beraz. Baziren bi, gutxienez. Eta bien artean posible zen alde zaharra. Gasteiz, Araba, Euskal Herria, Europa berregiten hastea, bizitza berriari ekitea. Posible zen gerraren iturburuari arretaz behatzea, horrelakorik inoiz. berriz gerta ez zedin. Borondatea besterik ez zuten behar. Aurrean beste gizaki bat zuela konturatu zenean, lunvan zetzanak ahoa irekitzeko keiua egin zuen. Ahalegin handiz lortu zuen, bai da hitz egin ere:

—Barkam... baduzu kaferik?



*Adriano De Mata*

2013ko Urtarrilaren 23an

## *Bihotzeko adiskide,*

Nola zauden jakiteko idazten dizut. aspaldi ez baitugu elkarren berririk izan.

Maiz irudikatzen zaitut egongelan, puntuzko bufanda gorria bukatzeaz, kafesne bero bat alboan eta zure begi handien distira guztiaren lekuko. Agian orain ere hor zabiltzajoko eta su artile artean gustura. Agian lagunuen batek deituko zaitu eta gozo bat/uk ekar ditzan eskatuko diozu, arratsaldea kontu kontari igaro asmoz. Edo agian nahiago duzu bakarrik egotea: artilearen gorria, kafesnearen berotasuna eta zu zeu. Agian tabernan zaude lagun koadrilaz inguratuta, ia nork astakeria handiagoa bota, barrez lehertzen.

Nik ere aukeratzerik banu... Egunero goizeko zazpitan altxatzen naiz eta eguna kalean gora eta behera igarotzen dut. Arratsaldeko zortzietan bukatu eta afori pasada bat egin ostean, ohean sartzea baino ez dut nahi izaten. Nekatuta bizi naizela pentsatuko duzu beharbada, eta hala da, baina ez pentsa, bada gaua kulunkatzen didanik ere...

Goizero postetxera iritsi bezain laster, niri egokitzen zaizkidan eskutitz guztiak karro horian sartu eta kalera abiatzen naiz. Barrenkaletik gora dagoen txoko batean egiten dut lehenbiziko parada; bertan hasten da nire irribarrea bistaritzen. Saillkapen zhatza egin beharra izaten dut, etxera alferrikako lanik ez eramateko. Berehala nabaritzen da igorlea bankua, telefono knnpainia bat ala pertsona arrunta den. Azken hauek dira nik aukeratzen ditudanak. Batak besteari idazten dizkietenak, minez, maitasunez, nostalgiaz ala atsekabez. Zenbaitetan gutun-azala usaintze hutsarekin, gai naiz harreman mota asmatzeko ere: atzerrian bizi den bikotea, anaiordeari kargu hartzen dion emakumea edo maite zaitut ustekabeko bat. Gutun guzti hauek motxilan sartu eta gainontzekoak banatzen igarotzen ditut orduak eta orduak. Etxe gehienetan alai egiten didate abegi, baina gutxi batzuk ez dute nitaz ezer jakin nahi izaten, beraien korrespondentziaren errua nik banu bezala. Gizon zahar marmarti batek egunero berdina errepikatzen dit leihotik: "Karro zikin horretan emakume ezitsa bat ekartzen didazun egunean beso zabalik hartuko zaitut; gainontzean utzi na/a/u bakean!" Nik, ordea, are anion at uago zirikatzen dut bere etxeko tinbrea.

E gueri dian hiru ordu izaten ditut bazkaltzeko, eta orain dela hilabete gutxira arte sabalari begira egoten banintzen ere, jada ez zaizkit aski. Nire egongela txikian eseri eta kontu handiz gutun azalak irekitzen hasten naiz. Gehien gustatzen zaizkidanak naitasun gutunak dira eta heriotzen berri ematen dutenak negar egiteko balio didate, husteko. Pertsonen arteko harremanak, sekretuak eta aurpegiak irudikatzen ditut irakurtzen noan heinean. Ez zenuke imajinatu ere egingo zenbat isiltasun puskatzen diren gutun bidez. Urte askoan urrunduta egon direnen hitzak, denbora luzez gordetako leporatzeak, behin betiko agurrak eta abar.

Nik ez ditut ordenagailu kontuak batere ulertzen, baina sarri entzun izan dut mundu paralelo mordoaz sortzen direla pantaila horien baitan. Bada, sekretu bat konfesatuko dizut: eskuz idatzitako gutun bakoitzak ere mundu desberdin bat sortzen du; berezia, fantasiosoa, sentitua. Hitzei esker, mundu hauek guztiak irudikatzen ditut eguerdiko, eta honen bihurtzen du nire eguna jasagarri.

Ez zaizu zilegi irudituko ziurrenik, baina erratuta zeundeke. Tristea da, besterik ez.

Inoiz gutunik jaso ez duen postariaren tristura.

Bakardadeak irenlsi ninduen aspaldi, eta orain nire burua xurgatzen dihardut, besteen bizitzetan urtzeraino. Nik ez daukat nori idatzi. Ez daukat zer esan, zer jaso. Hala ere goizero betetzen ditut postontziak, egunero garraiatu maitasuna, herioa eta iragana.

Nire gutun hau, ordea, uda/keneko hostoa da, zapaldutako orbela, entzulerik gabeko gitarraren soinua, bihotzeko nahi zaitudan adiskide.

*Ana Moñux*

# NIRE MAITALEHEN HISTORIAREN HASTAPENAK:

zenbait **almoada gainetan** ut/itako oharrak.

## 1. GAIA: 9. MAITALEA ETA EMOZIONALEGI NENGOENEOA

### 1.1. idat/i nuen lehen oharra:

Zer etorriko zaidan? Esango dizut zer etorriko zaidan, pixagura. Hori da etorriko zaidana, eta ez hilerokoa: pixagura eta zure gainean txiza egiteko gogoia. Ez zaizula gustatuko? Ezta niri zure kaka usaina ere.

Berdin dio, agur,

### 1.2. Ohar horretan idatzi ez nuena:

Ez dizut ukatuko zure argotean emozionalergia hitzarekin defmituko zenukeen egoera emozionala bizi dudala azken egunotan, zure aditzak hilekoaren etorrerarekin lotzen duen egoera emozionaleri hori, alegia. Zer arraio, zure aditzak eta heteropatriarkatu honek jositako buru gehienek aditzak zehazten zein ezartzen duen egoera emozionaleri hau. Ez al duzu inoiz pentsatu arrazoien izenean hitz egiten duzuen elbarritu emozionalen ahuleziaz? Eta ahulezi horrek emozio garapen zabalagoa dutenengan eragin dezakeenaz? Ez, arrazoikeriaz galdera emozionalerik direla erantzungo zenuke eta.

Jo dezagun, beraz, zergatik? galderari -(e)lako tinkoz erantzuten saiatu zen Platonen baieztapen horietako batera: "emakumearen naturan dago umeak edukitzea eta, ondorioz, burura igoko zaio umetokia (luster) haurdun geratzen ez denari, bere lekuan mantentzeko beharrezkoa duen grabitate faltagatik bain zuzen ere, horrela, hain ohikoa den emakumearen zoramena eraginez (hysteria)". Horra hor filosofia egiazalearen eta zientzia ahalguztidunaren arteko uztarketa zoragarria. Zeure gustukoa, ezta?

Ba, oraingoan ez du asmatu, a ze paradoxa, ea hilerokoa etorriko zaidan galdetu didazunean oso urruti ibili baitzara, haurdun nago eta.

PD: ohartu al zara haurdun eta umetoki hitzen ezegokilasunaz?

## 2. GAIA: 18. MAITALEA ETA AMARAL URKATU NT ENEKOA

### 2.1. Idatzi nuen bigarren oharra:

Amaral gehiegi entzuten duzula iruditzen zait. Ni, zu gabe ere, asko naiz, osoa. Sentitzen dut.

### 2.2. Ohar horretan idatzi ez nuena:

Benetan sentitzen dudana ez da nik alde eginda gero sentituko duzun pena, edo hiriko argirik ikusten utziko ez dizun kobazulo hotz horretara egingo duzun jauzia aurreikustea, neuk ere tristura sentituko dudalako. Barru-barrutik sentitzen dudana kobazuloari ekiteko izango duzun adore falta da; horrek bereizten gaitu eta horregatik joango naiz.

Ban fidellasuna eskatu zenidan, geure bizitzetako hainbat pasarte elkarrekin bizitzea erabaki genuenetik beti zurekin egon naizela ahaztu izan bazenu bezala. Fidellasuna eskatu zenidan, inoiz inorekin izan naizen zinezkoena zurekin izan naizela ez bazenek bezala. Fidellasuna, elkarrentzat eskusiboak ez izatea erabaki genuelako behin.

Ulertzen dut esaten duzuna, esango nuke fideltasun hitza ohetikide bakarra izatearekin nahasten dela gehienetan, baina nik ez dut hitzaren adiera hori neure egin nahi. Badakizu gorpuztuko dudana, dela arau bat dela gorputz bat, nire erraiek edo, zergatik ez, nire aluak zehaztuko duela eta ez dudala gizarteak eraikitako antzutasun makurrari bide egiteko asmorik; ez ni naizen nire gorputzean.

Maitatzeko modu beste pertsona gaude, maitatzen ere ikasi egiten delako (ez, ez datorkigu ez er emana). Eta nik pertsonen autonomian sinesten dut, jabetza pribatutik ezer ez duen maitasun aske batean.

Maite zailut, baina Amaral ama mal.

## 3. GAIA: 54. MAITALEA ETA GARRAZTASUNAZ OHARTU NINTZENEOA

### 3.1. Idatzi nuen hirugarren oharra:

Zure zeuk marrubitu nau. Zapore bila nabil beti, zapore gorri bila zure bazterretan. Baina mingotsa zara, edo garratza. Eta eztarria urratu dit zure semenak (metafora).

### 3.2. Ohar horretan idatzi ez nuena:

Lehenengo eta behin, ez dakit zergatik jarri dudan parentesi arteko hori, metaforatik gutxi du eta. Agian, faloaren gorentasunari uko, muzin eta paSO egitea ez zaidalako hain erraz suertatzen idatziko nuen. Orain arte halaxe zen cla.

Hori bezalako mila ohar idatzi ahal izan ditut, koma bakarrik aldatu gabe, mila almoada garratz irentsi izan ditudalako (almoada jartzen duen horretan jar ezazu bururatu zaizun beste hitz hori, ezabatu hain nirea den metaforaren errazkeria, mesedez). Hobeto pentsatu dut, utzidazu niri: mila zakil garratz irentsi izan ditudalako. Eta zurea guztien artean bat besterik ez da.

Baina lasai, ez bainago haserre, ezta penatuta ere. Txoko gorrien bila abiatuko naiz, inoiz baino argiago daukadalako nahi dudan hori zer den. Eta zuk ere lagundu egin didazu; are gehiago, garratasun guzti horrek lagundu dit nahi ez dudan hori definitzen. Eskerrik asko.

## BSLIOGRAFIA

-Hainbaten artean (k.a. 2000- k.o. 201.) ), Elbarritu emozionalak, hainbat argitaletxe.

• Amaral (2010), Sin ti no soy nada, Amaral en Kan Kluba.

-Tab Palen elkarte (2005), Garraztasunei uko, Talo Palen elkarte.

AZTERKETARAKO ZENBAIT OHAR:

- 1. *Esaten ez dugun hori da jomuga.*
- 2. *Esate n ez dugun horrek ere egiten gaitu, esaten dugunak baino gehiago agian, askotan.*
- 3. *Zergatik uste duzue ez nuela idatzi gabeko hori inoiz idatzi.'*

Alaitz Andreu Eizagirre



## Eder zaude, ama/

Egunak eman ditu ospitaletik irten gabe, zure ohe ondotik mugitu ere egin gabe. Igarria dio halabeharrari kontu onik ez duela elkarriko, eta larri dago zure zuri begira.

lekua etortzen denetan baino ez zaizu ondotik aldatzen, baina gaur nabaritu du zerbait ohi baino okerrago dabilela. Izango da ohi baino nabarmenagoa delako zure aurpegiaren zurbila, izango da egunerokoa baino sakonagoa delako zure hatsaren sakona, baina gau egin zaio medikuari lekua uzteko zure ondotik aldentzea.

<<Eder zaude gaur, ama. dirudizu >>

< > ondotik aldentu baino lehen, zure eskuari heldu dio, gogor, aspaldi egiten ez zuen moduan. Zure eskua... bizi za oso bat begien aurretik segundo bakarrean.

Gelatik irten da medikua eta erizaina zure pulsuari begira hasi orduko, eta kanpoan, ate ondoan geratu da, artega, zain.

*-Está agonizando. Es el momento de despedirse-* Jakin dakienaren konfirmazioa. Aizto zorrotz bi errailetara, ni barruan naukaten errailetara. Amaren mina jaso dut. Gelara sartu da. Amaren gorputz osoari darian mina sentitzen dut umelokian nagoela. Zure begi itxiei eta arnasa pausatuari erreparatzean sakonago bihurtu den mina; eta ahaztu egin zaio ate horretatik kanpo badela mundu bat, baduela senar bat, baduela etxean

seme bat eta barruan aurki jaiotzean den alaba bat. Unibertso osoi ospitaleko gela zuri eta hotzaren barruan kabitzen zaio orain. Berarentzat, zu baino ez zaude orain.

Ohe bazterrean eseri, eta luze begiratu dizu, zu ukitzera ausartu ere egin gabe. Burura etorri zaio urteetan aurrera jostnagatik ez duzula galdu berezko dirdira, besteengandik bereizten zaituen barruko argi hori. Bizimodu gogorrari nor bere burua traizionatu gabe ekin izanak ematen duen diuntasunaren argia, barru-barrutik irteten den berezko dotorezia hori. Eta betiko nahiko luke hor gelditu. Nahiko lituzke zure arnasari darizkion bizi izpiak harrapatu eta gorde; baina badaki denbora zigor krudel eta geldiezina dela, eta zuei ere ez dizuela barkatuko. Aurki joana izango zarela beste norabail. Badaki istant hori laster bukatuko dela, eder dena bizkor eta iragankor baita. Elurrak jantzia duen amaraunaren ederra luze gabe hautsiko du haren pisuak, zu ete bizitza gogoraren pisuak haustear zaren bezala. Baina une honetan eder zara, amaraun elurrez estalia bezainbat. Eder eta lasai, inoiz ez bezala. Urteek azal zuri eta leunean zizelkaturiko dotoretasunez eder.

Eta berak zuri begira jarraitu nahi du, oraindik guztiz joana ez zaren bitartean, eta nik bere mina nabari dut, barrua erdi-bitzerainoko mina sartu zait bamera.

Eskumeko eskuaz zure bi eskuei heldu die a/kemk, badakielako azkenekoz ukituko zaituela zu, nurrerantzean zure gorputz izandako haragi zati hutsa baino ezingo duela besarkatu, eta ezkerreko eskua bere sabel gamean jartu du, nire gamean, barruan duen harria sentitu nahian; eta damu da, eta errudun sentitu da elkar ezagutuko ez dugula uste duelako. Errudun sentitu da ez dakielako bere errailetan naizenetik ezagutzen zaitudala, eta berarekin eta zurekin batera emanak ditudala ohe bazterrean zuri begira emandako ordu guztiak. Errudun sentitu da eta damu da ez dakielako berak oroitzen zaituenak badaitzen naizela, ni zuen iraganera, berak gogoratzeaz batera bizi ditudala nik bere oroitzapen eta amets guztia. Errudun sentitu da ahaztu egin duelako, nik zureak ezagutzen ditudan legez, ezagutu zituela aspaldi berak zureak. Eta berak zuri begira jarraitu nahi du...



Araitz Jauregi

## Hotzala bero

*Gertuzuen heriotza,  
baina kafesnea nahi zuen berak.*

Berandu iritsi da, beranduegi da. Zain dauzka senideak gela holzaren sarreran. Zu ere here zain zaude. Orain gorpua besterik ez zara. baina bere zain zaudc. Ez daki une honetan zer den egokiena, agian besarkatu beharko lituzke, beharbada negarrez hasi, edo akaso keinu samur isilaz agurtu. Urduritasunak hanka-gora jarri ditu here asmoak cla hitz txoroak atera dira bere ahotik, hitz txoroak besterik ez, hitz txoroak noraezean. "Berandu iritsi naiz! Noiz hil da?"

Ez duzu bisitarik jaso hil zarenetik, hiltzorian lagundu zaituzte, eskutik hartu zaituzte, baina hor bukatu da dena. Orain, beldurrak estali zaitu zu eta here hartu du giroa. Ausarla izan da gelara sartzean, edo agian koldarregia. Bizirik zeundela ez. zintuen gaixo ikusi nahi izan, ez zituen azken egunak zure alboan igaro nahi izan. Beldur zen, hura zen beret/at benetako beldurra. Bihotzeraino sartzen zitzaion beldurra zen hura. Zuri begirada eustearen beldur zen, zuri eskua leun laztantzearen beldur zen, zuri agurra ematearen beldur zen. Beste aldera begiratu zuen orduan, orain ausartaren plantak egiten dituen arren.

< Irain dena da suposizio. Entzun ditu kontu batzuk zuri buruz. anaiak kontatzen zizkion. Egutero jasotzen zuen anaia-  
ren deia. Bera lanez lepo omen zebilen, ezin omen zituen ardurak alde batera utzi. Azken cgunclan kafesnea nahi omen zenuen, ero moduan eskatzen zenien erizainei orduro, minuturo, segundoro. Konturatu zinen arte zure eskaria neurritz kanpokoa zela. Orduan damutu zinen, orduan hasi zinen barkamen eske. Harrigarria iruditzen zaio heriotza, harrigarria gizakiaren jarrera honen aurrean. Kafesne batek hartu dezakeen garraultiaz herioaren aurrean.

Zuri begira jarraitu nahi du, baina ezingo du denbora luzez jarraitu begira, gela uzteko agindua jaso baitu. Matrailezurra lekuz kanpo duzu okertunk. beldurra sumatzen zaizu begiradan, hori zaude, kontsumiturik. Badirudi heriotzak ezustean harrapatu zaituela, ez zenuela espero. Badirudi sufritu duzula. Lozeunden baina. Morfinak kentzen zizun mina, lotanjara raitzea bezala izango zela uste zuen, baina ez da hala izan antza denez. Ohearen alde guztietatik paseatu da zu aztertuz. Buruan mila galdera. Mila galdera heriotzari buruz. Eskua luzatu du zalantzati. Behatzaz ukitu dizu kopeta. Ukitu azkarrak izan da, ez du denborarik izan bero ala hotz zauden jakiteko. Ez dizu musurik eman. Mugituko zarelakoa, ezustek oraingoan bera harrapatuko duelakoa.

Zuri begira jarraitu nahi du eta hala izango da. Badu gaueko hamarrak arte nahikoa denbora. Prestatu zaituzte, apaindu, moldalu eta izozkailuan sartu zaituzte. Beterik dituzu masailak, hori jarraitzen duzu, baina aurpegia ez duzu argal. Ahoa josi dizutela diudi, Matrailezurra bere lekuan dago. Itxirik dituzu begiak, jada ez dago beldurraren arrastorik zure begiradan. Hotz ala bero ote zaudc oraingoan? Tenperaturaren markagailuak esan dio 4 gradutara zaudela hor barnean. Itxituraren barnean zaude. bera kanpoan dago. Gela goxoagoa da, salatxo bat eta guzti egokitu dute senideak bertan geratzeko, baina zu ez zaudc goxo. Preso dute zure gorpua, kristalak markalzen du orain egoera. Zu hilda zaude. eta bera bizirik zuri begira. Hitz egiten dizu orain. nahi dituen kontu guztiak esaten dizkizu. Maitasuna ere adierazi dizu. Alferrikakoa ordea. Ez duzu entzuten, ez dituzu hitzok eskertzen.

Jada ez zaitu ikusten. kutxaren barnean zaude. Zure errausketaz arduratuko denak esan dio aulkian esertzeko. Hirugarren eguna zu agurtzen, luze jo du guztiak. Zoko batean sartu dute zure zerraldoa. jendearen negarrak bete du giroa. Film triste bat ikusi berri dutela diudi. denak aurrera begira, ikuskizun negargarri baten pare. Dardara hotsek adierazi dute zorua jaisten hasiko dela. atea esten hasi dira. bazoaz. badoa zure gorpua . Bukatzera doa guztia, badaki deskantsua faltua izango dela. Bete du prolokoloa, baina barnean geratu zaizkio zauriak. Zuzen jokatu du jendaurrean. baina ez da zuzena izan zurekin. Ezingo du bukatu beharreko lana bukatu sekula. Amaiera emango dio honi, parafernalia guzti honi. Eta azken xuxurla egingo du: "Agur aita, agur". Agur Jauua. agur agur...



Zuriñe Zubillaga

## Kasandraren ametsa

Behin batean, hemendik urrun. oso urrun, bazen herri hat. Herri txikia zen, mendi garaien magalean, itsasoaren ondoan. Txikitxoa, baina denetarik zuen: iturria, pilota-lekua, taberna, eliza, okindegia... denetarik, eskola izan ezik. Hala ere, jendea pozik bi/i zen. Tira, eskola egon bazegoen, baina ez gaur egun ulertzen dugun modukoa. Umeek ogibideak ikasten zituzten, eta bazen edonorentzako aukerarik: ferratzaile, jostun, eltzegile, gozogile, merkatari, beiragile, arrantzale...

Kasandrak, ordea, gehiago nahi zuen. Ondo zeritzon ogibidea ikasteari, baina ez zitzaion nahikoa iruditzen. 1-herria

etorkizunera begira bizi baitzen. Eia berari iragana ere interesatzen zitzaion. Horregatik, ham zuzen ere, ikasi nahi zuen irakurtzen. Baina ez zuen asebeteko zuenik inondik ere topatzen. Herrian inork ez baitzekien irakurtzen. ezta idazten ere. **Gainera**, jendeak, beharrik ez zuenez, azkenean ahaztu egiten zituen antzina gertatutakoak. **Izan** ere, herrian **libururik** izan bazen arren, **denek esaten** zioten Kasandrari **hobe zuela** bestelako **zereginetan jardutea**, irakurtzea baino askoz gauza interesgarriagoak eta **baliagarriagoak** bazeudela, alegia. Baina Kasandrak ez zuen **etsitzen**. Irakurtzen ikasi nahi zuen, eta lortu arte ez zuen bakerik izango.

Egun batez erromes bat iritsi zen herrira. Oso gizon zaharra zen, ozta-ozta **ibil zitekeen**, **makilaren laguntzaz betiere**. Ume eta gaztetxo guztiek **inguratu** egin zuten, ikusminez. **Horren gizon zaharra ikusten zuten lehen aldia** zen. Erabat aurpegi zimurtua zuen; hortzik ez ahoan, eta ahots pitzatua.

Esan zuenez, herririk herri ibilia zen bizitza osoan, **umeei** irakurtzen irakasten. Lanbide gogorra baina atsegina oso, esan zuenez; ez omen zen **damutzen**. Orain, zahartuta **gutziz**, **menditontorreko komentura** zihoan azken egunak **ematera**, bakean **hiltzera**. Gustura **hilko** zen, zoriontsu. Agureak hitz egiten amaitzean, Kasandrak haren ondoan egin zuen monasteriora **zeraman** biderearen zati bat,

—**Agure** jauna —**esan** zuen, herritik aldendu **zirenean**—, nik ere irakurtzen ikasi nahi dut. Zuk ezin didazu lagundu?

—**Ez**, neskatxa —**erantzun** zion **agureak**—. Zaharregia naiz zuri irakurtzen irakasteko. Baina oso **neskatxa** azkarra dirudizu, eta nabari da ikasteko gogoz **zabiltzala**. Horregatik kontatuko dizut **neure** sekreturik **handiena**.

Kasandrak ez zuen ezer esan. Adi-adi entzuten zuen, gero **eta** jakin-min handiagoz.

—Zure adina nuenean —**jarraitu** zuen **agureak**— ez zegoen herrian irakurtzen irakatsi nahi zidanik. Bizitzan hori baino zeregin garrantzitsuagorik bazegoela esaten zidaten denek. Egun batez agure zahar bat igaro zen herritik. Haren **esanetan**, bazegoen irakurtzen irakatsi ahalko zidanik. Baina horretarako bidaia **handia** egin beharko nuen, gizon jakintsuaren bizilekuraino, bakar-bakarrik. inoren **laguntzarik** gabe. Agure haren arabera, ez zion inoiz, ordura arte, sekretua **inori** kontatu. Ni izan **nintzen lehena**—. Atsedendalditxo egin zuen. Kasandraren arreta erabatekoa zen ordurako—. Eta agure hark nola, neuk ere hala kontatuko dizut sekretua. Neskatxa argia ematen duzu-eta.

**Kasandrarenganantz makurtu** zuen burua agureak, eta belarrira xuxurlatu:

—**Entzun** ondo: ilargi **betearekin** batera hasi behar duzu ibiltzen, **gauerdian**, haizearen norabidean. Hiru egunen **buruan** gizon jakintsuaren kobazulora iritsi eta zain geratuko zara, aintziraren ondoan. haizeak txokolate usaina izan arte. Orduan kobazulora sartu, eta gizon jakintsuari dei egingo **diozu**. Hortik aurrera bera arduratuko da. Baina ez ahaztu garrantzitsuena: ezin diozu sekretua inori esan. Baten batek haren berri izaten badu, bakar batek izanda ere, ez duzu **sekula** irakurtzen ikasiko... - sekretua adierazi ondoren, **goxo-goxo** jo zuen buruan. maitekiro, eta bidaia ona opatu zion. —**Konfiantza** handia dut zuegan, txiki —**esan** zion ondoren, Kasandrak ezer **esaten** ez zuela **ikusirik**—. Baina orain joan egin behar dut. Pazientzia izan eta zorte on!

Neskatxa, entzundakoarekin liluratuta, herrira itzuli zen. **Umeek jolascan** jarraitzen zuten, **ezer gertatu** ez balitz bezala. egun arrunta **bailitzan**. Baina berak bazekien ez zela egun arrunta, egun arrunta ez **zenez**: agurearen sekretua ezagutu baitzuen. Ematen zuen herrian inor ez zela ezertaz konturatu. Hobe hala.

Kasandrak patxadaz hartu zuen egitekoa. Eta ilargi betea iritsi zen, azkenean. Egun hartan, gauerdia iristeko irrikaz **ibili** zen Kasandra. Luze egin zitzaion arren, azkenik iritsi, eta **abiatu** egin zen, agureak esan bezala, haizearen norabidean. Herri osoa **lotan** zetzan. Isiltasuna besterik ez zen entzuten. Herritik irten eta baso **ilunean** sartzean **pentzatu** zuen **ergelkeria** zela horrelakorik egitea, **zertarako** eta irakurtzen ikasteko. Biderik ez topatzearen beldurrez, itzultzekotan egon zen. Barru-barruan, baina, zerk edo zerk **aurrera** jarraitzera **bultzatzen** zuen.

**Hiru** egunez ibili zen, inorekin topo egin gabe. zuhaitzen azpian **lo** eginez, ibaietatik edanez eta **marrubiak** zein bestelako basa-fruituak janez. Eta, halako batean, iritsi zen **mendi handiaren** magalera. Kasandra ez zerurako ez lurrerako geratu zen: mendi lerdana, miresgarria, aintzira **zoragarri** eta gardenaren ertzean, zuhaitz dotorez inguratutik. Eta **mendiaren** magalean, kobazuloa. Agureak esan bezala, zain geratu zen, haizean txokolate usaina igarri arte. Orduantxe **soilik** sartu zen Kasandra kobazulo barrura, eta gizon jakintsuari dei egin:

—**Gizon** jakintsu, gizon jakintsu! Iritsi naiz! Entzuten didazu? —**eta** zain geratu zen.

—**Kaixo**. Kasandra, eta ongi etorri! Luze egon naiz zure zain. Zer **moduz** zaude?

Kasandrak ez zekien zer esan. Oso gizon zaharra topatzea espero zuen, herrian ikusi zuen agurea baino are zaharra-

# narrazioak

goa; izan ere, ez zion gizon hark agureari irakurtzen irakatsi? Nolatan zen, bada, horren gaztea. Pentsamenduon berri eman zion gizon jakintsuari:

— Bai, neuk irakatsi mon agurean irakurtzen — erantzun zion — Aspaldi izan zen, baina oraindik gogoan dut. Ikasle tina izan zen Hala ere, gaztea ematen dudan arren, hura baino askoz ere zaharragoa naiz. Jakituriak ematen dit itxura gaztea. Izan ere, nik irakatsi diet irakurtzen inguruko guztiei. Ez bakarrik irakurtzen, baita etxeak eraikitzen, animaliak ehizatzen, eguraldia aurrekusten, izarren esanahia ulertzen.. Ni izan naiz guztien maisua Baina esan, txiki, zergatik ikasi nahi duzu irakurtzen?

— Herriko umeei irakasteko, euren historia ezagutu eta ahantz ez dezaten — pentsatu gabe erantzun zuen Kasandrak — Baita zuhaitz, mendi, aintzira eta inguruaz idazteko ere, geure ondarea gal ez dadin

— Primeran, Jarrai iezadazu, mesedez — esan zion gizon jakintsuak orduan. Eta kobazulo barru-barruraino sartu ziren. Kobazulo barruan gizon jakintsuak irakurtzen irakatsi zion, baita idazten ere, eta horrelaxe bete zuen Kasandrak txikitako ametsa. Baina herri are historia idatzi gabe zegoen oraindik. Beraz, itzultzean, ikertzeari ekin zion. Horrela idatzi zuen Kasandrak herriaren historia. Amaitzean, herriko ume eta biztanle guztiei irakurtzen irakatsi eta, hari esker, guzti guztiek euren historia ezagutu zuten, baita ondorengo belaunaldiei helarazi ere. I horren pozik zeudenez, haiek ere idazten hasi eta mota guztietako liburuak sortu zituzten. Hala, herri hartan munduko idazle handi eta ospetsuenak jaio ziren. Era horretan, Kasandrak gizon jakintsuarekin topo egin eta mila urteren buruan, umeei eskolan herriaren historia eta pertsonaia ospetsuak ikastea egokitzen zitzairenean, Kasandraren balentriak ikasten zituzten: «Hauxe da Kasandraren historia, hatzeak txokolate usaina zuen egunean irakurtzen ikasi eta jakituria herri osoari eman zion neskatxaren historia»

*Adriano De Mat*

## Gereziondoa loretan

*“Gereziondoakneguko hotza behar du bere atsedernaldia apurtzeko”*



Esku hotzak berriro. Azken aldian sarritan. Eskularruak janzen dituzu, baina Ivrorik ez. Egunero janzen dituzu, agian ingurukoek hotza uabaritu ez dezaten izango da edo hotza artilez estalita joango dela uste duzu oraindik? Barruko eta kanpoko hotza. Eskularruen azpian ezkututzen duzun hotza. Eskularruen jokoia, hotzaren gisan, errutinaren pane bihurtuz.

Gereziondo bat landatu zenuen bere txokoan, orduak igarotzen zituen baratzaren ertz hartan, mendiei begira, egurrezko aulki txikian eserita. Orain zu zara egurrezko aulki txikian eseri eta sukaldeko leihotik begira egoten dena. Baina zure begiek ez, dute bere ertzelek haratago ikustean; mendirik ez. Begira zaudenean, curi edo oskarbi, curia egin zuela gogoratzen duzu. Euria gogotik, eta zure amak behin esandakoa etortzen zaizu burura: "Gizon onak hiltzen direnean curia egiten du, curi tanta bakoitzarekin lurra busti eta bizi berri bat sortzeko".

Egunero deitzen dizu alabak, eta larunbatero etortzen da bisitan. Ostiraletan etxea txukundu eta hurrengo eguneko bazkaria prestatzen duzu. Ez da hori larunbaterako prestatzen duzun gauza bakarra. Nonbait oraindik gorderik dagoen moxorroa ateratzen duzu. Ama gogorraren moxorroa, bizitzak aurrera jarraitzen duela dion hori. Lisatu eta prest uzten duzu. hurrengo egunean denon aurrean dotorc agertzeko. "Zergatik besteak kezkatu?". Alaba, ez da inozoa baina amaren ahalegina ikusita bera ere antzezten hasten da.

Pixkanaka, larunbateroko antzeppenak astean zehar ere egiten hasi zara. Erruki begiraden artean igerian ikasi zenuen hasieran. Zer moduz zeunden galdetzen zizuten guzliek eta eman zitekeen erantzun bakarra "ondo" zela esan zenion zure buruari. Ondo zenion bakoit/ean baina. Ferminen esana zetorkizun burura "ondo izorratua" esaten zuen berak lanetik umore txarrez itzultzen zenean. "Ondo" hitza hainbestetan erabiltzeaz ere azkenean nazkatu egin zara eta horregatik etxean geratzea erabaki duzu. beharrezkoa denean bakarrik irtengo zara kalera hemendik aurrera.

Gaur ere etorri da alaba etxera. Sukaldean zaude leihotik begira. Ez zara ohartu joan den ordu laurdenean zure atzean dagoela Irratiak eguerdiko bamabietako informatiboaren seinalea eman du, baina ez berak eta ezta zuk ere. ez duzue albistrik entzun. Buelta erdia eman duzu halako batean eta hogeita host egunean lehenengoz, alabak negarrez ikusi zaitu. Gaur moxorroek ez dute ezertarako balio. Malkoak masailetan, oroitzapen gozo eta gazieta murgildu zarete. Leihotik begira. alabaren ilea ukitzen ari zara, umetan negarrez hasten zenean bezalaxe eta denborak at/era egin duela iruditu zaizu. "Ama gereziondo horrek ez du batere itxura onik, kendu eta berri bat landatu beharko zenuke..." Ez diozu erantzun, kantuan hasi zara "loa loa, ttunturun berde, loa loa maxuxta". Fermini ere abesti hauxe abestu zenion hil aurreko egunetan. lo igaro zituen bi egunetan. Horixe nahi zenuen. zure senarra lo gozoak hartzea.

Egutegiak jantzia aldatu du aunitzetan. Bitartean. egurrezko aulki txikia, eskularruak eta gereziondoa egunero. Gaur ordea ez. Armairuko beheko liradera zabaldu eta igandetako zapatak atera dituzu. astelehen buru txuri bat izan arren. Ez dakizu zergatik, baina gorput/ak hala eskatu dizu. Ezpainetakoa ere eman eta Ferminekin batera egiten zenuen pascoa egin duzu. Biok eseri eta jendeari begira egoten zineten aulkira iritsi zara. Bakarrik zaude baina ez duzu hala sentitzen, Gogoratzen zara eseri aurretik egunkari zatia poltsikotik nola ateratzen zuen; laino bat ikusi orduko aterkia hartu edo ez hartu zenbateko zalantzak izaten zituen; kalera irten aurretik beti ematen zenion muxuaz. Margari eseri da zure aldamenean, eta ezer galdetzerako badaki zertan ari zaren. Bera ere sarritan zu bezalaxe egon izan delako: irribarre bat ezpainetan, ezerezari eta aldi berean guztiari begira. Begiak barrenera begira jarrita.

Etxera iritsitakoan ispiluaurrean aurrean jarri zara. Zure e/painci begira ari zara. Hamalau segundoz sentitu duzu margoaren gozotasuna ezpainetan, hamabosgarren segunduan, zure buruarekin haserre, ezpainetakoa kendu duzu ezkerreko eskuaz. Eta ispilua erakutsi dizun aurpegiak triste dagoen pailazo batenaren antza handia duela iruditu zaizu. Aurpegia urez garbitu duzu. arrasto guztiak ondo kendu arte eta urarekin batera beste zerbait ere joan da. Arropak etar zapatak erantzi eta armairuan ondo gorde dituzu. Etxeko zapatila zaharrak eta amantala jantzi eta sukaldeko leihorearen aurrean jarri zara. "Behar duen bezala, beti bezala, egokia den bezala" hiru esaldi horiek errepikatzen dizkiozu buruari. Baina gereziondoa ximel dagoela ohartu zara; lorcrik ez, bizirik ez.

Arratsaldeko bostak aldera ganbarara igo, pala eskuan hartu eta gereziondoaren alboan zaude. Metalaren soinua ozen entzun duzu eta lur apur bat irten da lehenengo saiakera honetan. Pala barruan dago, indarra egin eta atera egin beharko zenuke. Baina ez. zuhaitza errotik ateratzea ez da irtenbidea. Irtenbidea balitz ere, ez zara hori egiteko gai. Udaberria da. zuhaitzak loretan egon beharko luke. Hala ere zuretzat, inguruko zuhaitzik ederrena izaten jarraitzen du. Batzuetan errotik aterako zenuke eta besteetan beldurrez gerluratzen zara sukaldeko leihora, zuhaitzak hor jarraitzen duela ikusi arte baretzen ez den urduritasunez.

Lau udaberri igaro dira dagoeneko eta oraindik ez da inoiz loratu. Batzuetan haur batek bezala jotzen duzu korrika leihora, adaxketan loreren bat ikusteko esperantzan. Kanpoaldeko ispiluan ordea. ez da lorcrik ageri. Urteak daramatzazu egurrezko aulki txikiaren gainean egunero eseriz. Bat-batean, zuk ezer egin gabe. zorientasuna zure bizitzaren pane izango dela sinistuz.

Ilbartzaren hamalua da. Kanpoan hotz egiten du. Elurrak bazterrak zuritu ditu baina zuk hotzik ez, ez duzu eskularruen beharrik. Barruan aspaldian sentitzen ez zenuen gozotasuna nabari duzu. Haizeak bazterrak astintzen ditu eta zurean ere gogor jotzen du. Zirrikituren batetik txistuka, gereziondoa deika ari zaizula sumatzen duzu. Leihorantz hurbildu zara. Haizea geroz eta bortit/ago. Hainbestetan ikusitako gereziondoa begiratu eta adaxka batean. lore bat ageri da. Gereziondoak neguko hotza behar izan du bere loaldilik esnatzeko. Sasoiak kanpo dela esango dute batzuek, baina urte sasoiak ere ez dira aldatzen ari? Gereziondoa fruituak ematen noiz hasiko den amestuz jarraitu duzu lehiotik begira.

# ALMOADAPERA SARTZEN

Almoada azpira sartzen zenuen eskua inor zurekin gogoratu ok zen jakiteko. Ez zenuen, ordea, inoren deirik espero; ez inoren SVISrik, WbatsApp mezurik, ez inoren hotnail edo gmail edo yahoo bidezko mezurik espero. Baina almoada azpian, zugandik ahalik eta hurbilen gordetzen zenuen zure magik or, iPhone, smartphone, blackberry edo iPod-a, inor zurekin gogoratu ere, lehenbailehen jakin zenezan. Almoada azpira sartzen zenuen eskua gauero hogeita hamar bat aldiz Alperrik.

Are gehiago, mesanotxerik izatearekin ez zenuen nahikoa. Belarri azpian, belarriari pega-pega eginda entzun nahi izaten baitzenituen gauetan mututzen iron pi-pi eta ring-ring-ak. Gauak joan, gauak etorri, eza entzuten hasi zinen gaueroko soinu gabezia hartan.

Konturatu orduko, bakardade hiruak eragindako tekla-malkoak hasi zinen isurtzen.

*Alaitz*

Milaka hitz azalekoen atzcan ezkutaturiko begirada besterik ez zait inporta gaurkoan. Begi beltz ilun eta irribarrea. Esan gabeko lur-hitzez bere baitan gordetzen duten isilunea. Soaldia. Arnasik gabeko ofetasuia. Ezkutuko debekuen ezina. Nahiarren bidea. Ezerezak mundua betetzen duen sinpletasunaren derra. Eta badakit. Badakit hor zaudela, telefonoaren beste aldean. Joko ez duen sakelkoaren seinalean. Badakit sentitzen nauzula. Entzuten. Laztantzten. Badakit dei debekaturik ez dela izango. Baina, eskua burko azpian sarin, telefonoa heldu eta nirkin zaudela somatu dut. Nirekin, denbora eta distantziarik gabeko crrca-litatean.

*Idoia/*

Burkopian sartzen zenuen eskua, lehen, tximistaren ondoren trumoia entzutean. Amak dcika entzun ez, eta babesgarri zitzaizun; beldurtuegi zinenean, loak hartzeko lagungarri aproposa. Burkopea, ikararen aurkako babes.

Nagusiagotan, burkopcan sartzen zenuen eskua, etsamina-garaian, betiko kuttuna bertan zela ziurtatzeko; biharamunean, zailtasunetan bidaidc izateko. Burkopea, ez-ikasitakoaren kontrako aterpe.

Orain ere, burkopian sartzen duzu eskua. Maitaleak alde egin duela eta, hotz da ohea; hutsegi, isiltasuna. Ikararen aurkako babes, ez-ikasitakoaren kontrako aterpe ezin egokiagoa izandako burkoa, ordea, ez da nahikoa bakardadcarri aurrc egiteko, eta loak ezin berdindurik zabilta, handiegi zaizun birentzako ohean.

*Adriano*



# ZENUEN *ESKUA*

Almoadapean sartzen zenuen eskua, **eta mundu bat sortzen genuen** izaren babesean. Gorputzen **artean** zirrikiturik **utzi gabe** ere, **sekretupean** gordetzen genituen laztan eta ferekak; goizeko lehenak eta gaueko ordu txikitakoak. Gutxi balitz, zoro bihurtzeraino pizten zenuen nire barneko suharra, gozamenaren partididura bidaiaraziz ene desirarik beroena. Sexu-jolasa besterik ez zenak **gatibatu zintuen**, **maitasunaren** lehen taupadak ilsuturik **utzi zintuzten**, eta **gchiago nahi zenuen**. Beticrean geratu nahi zenuen nire izarpean. Orain, **gal** gaitezen azken besarkada batean, **eta utz ezazu** ohca hutsik, betirako. **Jada** ez **dut gau** amaigaberik **nahi zure ezpainetan**, **ez eta azalaren hizkuntzan gchiago solasean ibili**. Atera ezazu eskua almoadapetik, **joan zaitcz, arren, Bakardade**.

*Haizea*

Hogeita zazpigarren aldia da. **Bai, 27 aldiz sartu duzu** eskua almoadapean azken **ordu** laurdenean. Baina ezer **ez da** aldatu. **Eta** tristura zabaltzen **hasi zaizu** erraietan. **Badakizu denbora** gutxi dela etzan zarenetik, baina **gaur gauean** gertatuko da. **Eta** zuk, esna eutsiko diozu. Bai, ez duzu gaur **gauean** lorik hartuko. Gaur ez duzu **gaua** bakarrik eman go, eta, nork daki, gaurko gauaren ondoren **dena** alda daiteke. Zure lehen **aldia** izango da. Zure gertukoek ere ez **dute antzekorik bizi** izan. **Eta** zuk, lortuko **duzu, bai**, lortuko duzu. Perez arratoitxoaz egagutuko duzu, **opari asko utzi beharko dizkizu** eta lehenengoa **izango zara bera** ezagutzen. Helduek ere errespetuz begiratu **beharko** dizute.

*Miryan*

## KOLDARKERIARI MUSU

Gora eta behera ari da Jon espaloiko hogeiturotu zehar, espaloia mugatua balego bezala. motxila gainetik kendu ere egin gabe. Atariko atea zabaldu denean, irribarre zabal eta jalorra egin du. Atean motxila, lo-zakua, esterilla eta boltsoa ageri dira. Oraindik ez du Miren ikusi baina badaki atzetik etorriko dela. Bane egin nahi luke; sabelean dantzan duen harrak amasa bera ere eragozten dio ordea.

Miren ikusi duenean, lurrera eramanean ditu begiak, instintiboki. Neskaren begirada huts batek garaituko ala tvikituko balu bezala. Azkenean konturatu da. bai. Urduri dago Jon, berak nahi eta imajina lezakeena baino urduriago. Radaki Miren neska kemenzua dela; baina hura ere urduri egongo ote den galdetzen dio bere buruari. Ondo nahi luke. ez du neskaren aurrean koldar agertu nahi. Raiua zalantza handiak ditu. ziur Miren ez dela bera bezain oilobustia. Ene, askotan gorroto du bere burua.

Ekarri eguerdi on esan, irribarre gozoa egin eta kalean gora egin dute. Antzuola at/ean u/ten lagunduko dien autobusaren bila. Neskari uste baino denbora luzeagoz itxaron behar izan dio Jonek cla ozta-ozta iritsi dira aulobusean trasteak sartzerara, korrikaldi txiki eta guzti tartean.

Ez dute ia elkar agurtzeko astirik izan eta mendi aiders eramango dituen Lurraldeusean tokia hartua dute dagoeneko. Leihotik begiratzen eta naturaltasuna erakusten saiatzen bada ere, Mirenenan ditu begiak iltzaturik Jonck. Inoiz baino politago ikusten du kristalean. Mireni zuzen-zuzenean begiratzera ausartu da. Irribarre batez erantzun dio neskak, lotsarik gabe, urduritasunari tarterik utzi gabe.

Hamazazpi urte dituztela gogoratu du Jonek. Gazteak dira oso, eta lehen aldizko dituzte oraindik ere bizitzeko. Ederki kostatu zaio zubian neskalgunarekin joateko baimena hartzea, eta, jakin badaki,

Mirenek ere estualdi bati baino gehiagori egin beharra izan diola aurre garasoen baiezkua jaso aurretik. Parean ikusten dituen aldapen modukoa izan da prestaketa lana. Azkenean, ordea, autobusean

egotea lortu dute. Jonek badaki bizitza luzea dela eta itzulinguruak ere milaka izango duela baina, gauza bat argi badakila behintzat, Mirenekin izatea nahi du. Mirenekin erabat maitemindua dago eta haren aldetik ez du sufritzeko tarterik izango. Bere bizitza laburrean, ez du maitasun istorio gehiegi izan, baina inguruan izan dituen neskek, ez dute Mirenekin zerikusirik. Mirenen alboan ezer gehiago behar ez duela errepikatzen dio bere buruari. konbentzitu beharra izango balu bezala. Baina ez da egia. Argi eta garbi daki zergatik dagoen Mirenekin. Mirenek inoiz inork email ez du emanen dio. Ezingo luke bera gabeko munduan bizi.

Koldar jokatzeko ari dela konturatu da. Mirenek ez du halako mutila nahiko here ondoan. zerbait egin behar da. Eguna-aren ederra eta eguzkia lagun, ondoko eserlekura gerturatu eta musu txiki bat eman dio Mireni. Musika ere produzitzaileria atera eta okasiorako gordeta zeukan abesti go\o hat bilatu du. Hori duela ziurtatu eta kasko bat hartu dio Mireni. Deskargan gora doaz eta parean, oraindik ere, maldak nagusi izan arren, Jon ziur da haien n porraldukoan ez dela halakorik izango. "Gogoko tokian aldaparik ez" esan:oldea egin nahi du egun horietako feina. Dena zoragarria izango baita, zoragarria eta zirrargarria.

Eskutik heldu dio Mireni. Konfu txikiak esango dizkio belarrira, giroa gozaten has daitezke. Aske eta lasai doa autohusean, beti maitatzen du, eta beti alboan izango duen neska zoragarriaren alboan.

Miryan Irastorza San vicente

Argazkia: Nagore Alzela Ugarte

## HIRUGARREN EKITALDIA LEHENENGO ESKENA

*Euria ari du. Idazlea, 50 urte inguruko gizona. salako bazter bateko siloi zaharrean eserita dago ondoan duen terrazako ateari so. Hori du bere gogoeta txokoa azken urteetan. Gaur, gogoetan ez ezik, berbetan ari da. Emakumezko irudi bat atzematen da haizeak ateari beirara bultza dituen euri tauten artean. Ahanztura da. Idazleak zigarrotxo bat piztu berri du eta hautsontzia mahai gainean duela ohartu: hartzera altxatu da. Pauso mantsoz bueltatzen da siloira, entzun dituen hitzek beste aukeraren bat izan zezaketen bilatuz. Etsita, eseri egiten da.*

IDAZLEA : Beraz, berorrek oroitzapenak arindu besterik ezin du egin, arindu besterik ez.

AHANZTURA : Ez iezadazu berorika hitz egin. arren. Itxura besterik ez bada ere, zeurea baino gazteagoa ematen dut eta, bestalde, ez didazu begirune berezirik eskaini behar, zure moduko jatorri apala da nirea.

IDAZLEA : Ongi da. (Zigarroari ahokada sakona emanaz) Aditasun handiz entzun ditut zure hitz guztiak, baina bada zerbait ongi konprenitu ez dudana. Gertatu ostean oroitzapen bihurtzen da oro eta gure memoriaren armairuan gordetzen. Baina oroitzapenak gehiegi dira armairuaren edukierarentzat eta hargatik berorrek, zuk, gehienak eraman egiten dituzu. Arindu ez ezik, eraman ere bai.

AHANZTURA : Ongi deritzozu. Xumeak, garrantzi gutxikoak dira nik daramatzadanak; besteak norberaren historian atxikituta geratzen dira eta horrela iraganak, modu batean edo bestean, bizirik dirau zeuen memoriatan. Beti, bizitzak dirauen artean behintzat.

IDAZLEA : Hil arteraino. Orduan aske! (Zigarroa itzaliz) Baina berorrek, zuk ez zenuke armairutik nire oroitzapenik hartu beharko, nik mordo emango nizkizuke, borondatez. Eraman iezazkidazu mingarri zaizkidan horiek arren, preso naukate aspalditik.

AHANZTURA : (Gupidaz begira) Zenbaitzuk lapurtzat naukate, memoriak eta askatasunak lapurtzen ditudan akusaziopean epaitua izan barik, kondenatu egin naute. Zuk, aldiz, zeure oroitzapenak eraman ditzadan erregutzen didazu. Zin-zinez diotsul, ezin dut. Ez dut horretarako ahalmenik. Arindu besterik ez.

IDAZLEA : (Beste zigarro bat piztuz) Nik ez dut memoriaren arnairurik, zelda baizik; eta zuk, atearen giltza. Ez dut preso jarraitzeko ez indar ezta adorerik ere. Zeure, berorren baitan uzten dut nire bizitza ala heriotza (Altxatu eta ateari bizkar emanaz geratuz).

AHANZTURA : Eroso aurkituko zenuen zeure burua nik edo beste norbaitek erabaki hori harturik, baina askatasuna ez da erosoasarritan, beldurtu eta sufriarazten du. (Isiltasuna) Banoa. Nire lanarekin jarraitu beharrean nago. Izan ditzazula bizitza eta heriotz duinak, eta horiek askatasunez erabakitze aukera.

*(Idazleak buelta eman du, baina beiran euri tantak besterik ez ditu atzeman. Ahanztura oroitzapen da jada, eta bere memoriaren zeldan gorderik geratu da, betiko).*

## BIGARREN ESKENA

*Aste bete beranduago. Idazlearen arreba sartu da salan. Beltzez jantzita dago. Terrazako atearen gortinak zabaltzen ditu eta atea ireki. Hainbeste urteren buruan, gogoratzen zuen antzera dago gttzia. Mahai gainean, zigarrokin ez betetako hautsontzia ikusi eta harantz doa huster. Hautsontziaren azpian, anaiaren hitzak aurkitu ditu paper batean. Zirriborrorik gabe, txukun. Berak noiz aurkituko zain.*



# elkarrekin hizketan

Joan naiz joan, aske izanen naizen lurraldia era,  
oroitzapenek tormentatuko ez nauten paradisura,  
xuxurlatutako hitzak oihu bilakatzen diren hartara.

Eta iristen naizen bezain pronto  
maite zaitudala oihukatuko dut

aske, etengabe. Ez dut

requiemik beharko ezta erresponsorik ere. bakean izanen  
baitut arima.

Tentaldian amildu nint/cn Jainkoaren legea hautsiz, familia  
iraindu izanaren zamak zugandik urundu ninduen. Ezin  
ahaztu nuen

nebansn besoetan egona zinela,

berak maitatu eta desiratu zintuela, haita zuk neba ere,

ezin jasanik neba ncu nintzela. Erruki Jauna, Kristo eruki  
nioen.

Gogoan izan ditut beti egun haiek, baita

orain ere,

Eraman ezinak dira bai. ahanztufa anderea

Taburik gabe gogoratuko ditut aurrerantzean, eder,  
xarmant, lizun.


Eskribatu eginen ditut edo abestu edo errexitatu, Memoriaren  
zelda

arm airu bilakatuko da eta gura dudanean irekiko dut, ausart.

Maite zaitut.

TELOIA

*Ruth Martin Apezetxea*



## Ezer ez, sin mas

- Amaiaaaaa...

- Zer ama?

- Amaiaaaaaaaaa...

- Zeeeeeeer amaaaa...

- Etortzeko ba!

- Bai, oraintxe noa, itxaron pixka hat.

- Beti itxaroten, zu etortzerako ez dut ezer beharko!

- Oraintxe noala esan dizut, itxaron ezazu pixka bat ba.

- Zertan ari zara ba, etorri niri laguntzera.

- Eze! Ez, itxaron.

- Nola zertan ez! (Orain ere egongo haur traste txar horrek  
a derrepente!

- in denbora pasa. Etorri hadi hon...

Bai ama, uko dun, etorri hon bukatu arte.

- Gero bukatu... rri!

Bai ..

- Ikusten? Hain ere liburu txepel horiekin, ez al dundu  
du doblatzen. eldu maindireari.

- Bai ama.

- Bihar ere Bergarara joan behar al dun? Oraindik ez  
didan esan zertara joaten haizen haraino. Zerbait funda-  
mentuzkoa izango al da larunbatero juteko!

- Bai, bihar ere banoa, badakizu uda bitartean larunbatero  
joan behar dudala. Beti kontu horrekin hasi behar

al duzu?

- Eta, ez al didan ezer kontatu behar? Zer egiten duzuen  
edo zer moduz habilen, zerbait ikasi ote dudan...

- Bueno, bai, sin mas, zaila da azaltzen ama.

- Jesus neska! Ez zakmat ha hainbeste misterio zertara  
datorren, edo ez al dion amari ezer kontatu nahi?

- Ama, ez da hori baino... zaila da azaldu eta ulertzeko.

- Bueno bueno, hik ikusiko dudan baino espero dinat fun-  
damenduzko zerbait izatea, badun eta garai, eta ez beti  
liburu eta nobela txoro horiekin denbora pasan aritzekoa.

Hurrengoan denak harrikara botako dizkinak edo San Juan  
sutara!

- Piri pipi, pipi pipi, brrrr, brrrr, pipi pipi, pipi pipi,  
brrrr, brrrr...

- 3ai?

- Neska, kosta zain telefonoa hartzea!

- Barkatu, amarekin ari ninduan. Zer, zer moduz?

- V ondo, aspertuta, eta hi?

- Hementxe, sin mas.

- Bazekinal hor hagoela, ez dinat gafdetu non hagoen. Noiz  
ikasi behar dun "zer moduz" galderari behar bezala erant-  
zuten? Ez al dinat hori erakusten ikastaro nonetan?

- Hik ere hasi behar al duk?

- Bale bale... Aizan, gaur kontzertura joateko geratu

gaitun eta gero bokata bat jateko. Gaur ere ezingo dun ezta? Nolakoa haizen ere ahaztuko zaigun!

- Badakik ezetz. badakik bihar goizjaiki behar dudala ikastarora joateko eta ariketak oraindik ez dizkiat bukatu beraz... ez kontatu uirekin.

- Zer ari haiz, maitasun poemaren batekin niretzat?

- I/ hadi txoroa izan!

- Portzierto, noizko liburu bat? I, ehen kopia sinatuta niretzat nahi dinat,

- Zertarako, apaletan hautsak eta pipiekjateko? Ez duk irakurriko eta!

- Ei eta noizko errezitaldi horietako bat? Hik abisatu, joango gaitun ikustera eta batez ere. pintxo-poteora. MP3-a eramaterik ba al dago>

- Hoa popatik hartzera! Nazka nazka eginda nagok zue-taz. Behin batek beti egin nahi izan duena egiteko aukera izan eta zuekin ilusio guztia galtzen dik. I, agunak izango zaretela esango duzue gero, ezta? Eta lasai, libururen bat idazten badiat emango dial baina burutik behera jotzeko, ez duk besterik merezi eta! I, loa beste bati adarra jotzera!

- Klank!

*Amaia Artola Echeverria*

## Zorionak zuri

(Etxe duin bateko sukaldean, mahai baten bueltan AMA eta XIKER gosaltzen ari dira. Eskola egun arrunta da. Xikerren ondoko aulkia libre dago.)

X: Ama, kanta iezadazu ZORIONAK ZURI mesedez.

A: ZORIONAK ZURI gaur? Aizu. Xiker, urteak orain hilabete bete zenituen eta. Oraindik, beste hamaika hilabete falta /ai/kizu hurrengo urtebetetze egunera arte.

X: Hori badakit, ama.

A: Eta, orduan, zer demontre dela cla eskatzen didazu ZORIONAK ZURI kanta diezazudan?

X: Ama...

A: (moztuz) Badakit!! zure lagun berri horren urtebetetzea da gaur! Nola du izena?(bere buruari galdezka) Patxiku? Hori da, Patxiku. Ta, zer da ba. gaur Patxikuren urtebetetzea?

X: Ama...

A: Zenbat urte bete ditu? Zure adin berekoa da, ezta? Zort/i orduan. Bai, bai. (Xikerren ondoko aulkira begiratu) Bere tokian txintxo eserita al dago? Gaur ez diozu eta gaitarik eskaini gosaltzeko. Aizu, bere urtebetetzea izan eta zer edo zer eskaini beharko zenioke!!!

Beno, ta zerbait oparitu behar al diozu? Ziur marrazkitxoren hat egin diozula dagoeneko!

X: Amaaaaa...

A: (Patxadaz) Noski. noski! Nola ez naiz ba lehenago konturatu! ZORIONAK ZURI kanlatu bezain pronto ekarriko diozu mahai gainera marraztu diozun pastela!!! Baietz?... Beraz, txokolatzeko pastel izugarria margotu diozu? Zu bai zu artista...

X: Amaaaaa!!!! (Haserre samar)

A: Zer. Xiker?

X: Ama, ZORIONAK ZURI kantatuko duzu edo zer? (Haserre antzean... aurreko esaldiari jarraiki)

A: Ai, ama!!! Barkatu! Zure sekretua azalarazi dut. Zure oparia zein den esan diot Patxikuri... Hau hanka sartzca!!! (Hanka sartzca estali nahian) Beno, beno, kantatu egingo dugu...

Zorionak zuri, (Patxiku irudikatzen duen aulkiari kantatuz)

zorionak zuri.

Zorionak Patxiku... (bakarrik ari dela konturatzean isildu egingo da)

Aizu, Xiker. Nik bakarrik kantatu behar al dut?

X: Ama. alperrik ari zera, alper-alperrik!!! Patxiku ez dago hemen. Berak ez du ikastolara joan beharrik eta ohean geratu da lotan.

A: Ohean? A ze suertea Patxikurena!! Tira, lira. Baina. eta orduan, zeini kantatu behar diogu bada ZORIONAK ZURI?

X: (Ufaka) Niri, ama, niri...

A: Zuri? Eta zer dela eta kantatu behar dizut zuri, gaur eta orain (azpimarratuz) ZORIONAK ZURI?

X: Ez da ba hain zaila, ama!

(Azalpenak jakintsu baten eran emanaz):

Nola amaitzen dira ipuinak beti? Zoriontsu.

Nola bizi izan ziren Lantzeko herritarrak Miel Otxin hil eta gero? Zoriontsu!

Nola esaten didazue izan behar dudala handitzen naizenean? Zoriontsu!!!

A: (Ulertu ez.inik) Eta?

X: Eta? Ai... Dena azaldu behar al zaizu, ama!!!

Urteko zein egunetan izaten naiz ni oso zoriontsu? Noiz?

A: (Ama oso harrituta)

X: Zorionak zuri kantatzen didazuen egunean!!!

Beraz, zoriontsu izan nadin, ZORIONAK ZURI kantatu behar didazu egunero!

A: (Ama zeharo harrituta)

(Azalpenak emanaz) Begira, goizero-goizero ZORIONAK ZURI kantatzen badidazu, horrenbeste zorion jasotzen badut egunero. ba, orduan, handitzen naizenerako SUPER ZORIONTSU IZANGO NAIZ!!!


Eta orain, kantatuko al didazu ZORIONAK ZURI mesedez? Berandu iritsiko naiz eskolara martxan honetan!

### AMA1ERA

*Idoia Gereñu*



## Pako Aristi



Azpeitiako taberna galdu batean elkartu gara Pako Aristirekin. Etxean ez, baina etxean bezala egoten da bertan, ia-ia egunero, horixe baitu jendaurreko bulego. Kafeak kanpoko hotza berdinduta, literatura, idazketa, sorkuntza eta beste hainbat gai izan ditugu hizpide. Iritzi emaile ezagunak ez gaitu hotz utzi.

**Hemeretzi urten kin argitaratu zuen Azpeitiako udalak zure lehen lana, *Narrasti ozena*. Nolakoa zen garai hartako Pako Aristi idazlea?**

Hemeretzi urte, institutuan euskalzaletu zen bat nintzen. Institutura arte nik hezkuntza espainolez egin nuen eta apenas irakurtzen nuen euskaraz. Institutuan irakasle berezi bat egon zen, Iñaki Azkune deitzen zena eta hura berezia zelako hark sartu zigun guri euskal literaturarekiko inleresa. Nola egiten zuen? Deklinabidea eta gutxi eman eta liburuak ekartzen zituen zaku batean, liburu pila bat, pelikuletan ikusten ziren irakasle berezi horietako bat zen, bere kabuz nahi zuena egiten zuena. Zakuarekin eta irraticassette batekin etortzen zen klasera. Mahai gainean botatzen zituen liburuak, berrogei liburu, euskaraz denak eta bakoitzak nahi zuen liburua hartzeko esaten zigun. bakoitzak hartzen zuen nahi zuena, eta nik Joseba Zulaikaren *Adanen poema amaigabea* poesia liburua hartu nuen. Benga, orain eseri eta irakurri esaten zigun. Eta musika jartzen zuen, euskal musika. Ela guk orduan irakurri geni-

tuen euskal liburuak eta musika ere gehiago ezagutzen joan ginen, Txomin Artola, Benito Lertxundi. Oskorri... hark ekartzen zizkigun garaian zeuden kasetak. Bi orduko klasea. Marabilla bat, guretzat oasi bat zen, Badakizue eskola zer den, eskola kastrantea da, hura liberadorea zen, eskola liberadore bat. bi ordu musika entzuten eta irakurtzen. Liburuak gustuko ez bazenuen utzi eta beste bat hartzen zenuen. Ez derrigortze horrek piztu zuen gutako askorengan maitasun bat euskal literaturarekiko eta ni orduan hasi nintzen irakurtzen. eta gustalu zitzaizkidan batzuk. eta beste batzuk ez, hola hasi ginen. Baginen batzuk idazteko zaletasuna genuenak eta ban **geunden** gero idazleak izan direnak hiru, bata ni, bestea Iñigo Aranbarri eta bestea Juan Luis Zabala, Berrian idazten du eta berak ere liburuak dauzka. hiru ginen eta gure gauzak eta idazten hasi ginen. Lehen liburu hori nire lehenengo ipuin bilduma da eta nik garai hartan irakurri nituen testu haien collage bat dela esango nuke. Guk ez genekien zer estilotan idatzi, ez zegoen oso estandarizatua euskara artean, ia pasatu dira **hogeita** hamar

urte eta garai hartan inork ez zekien literatura nola idatzi. Atxaga zebilen gauza bangoardistak egiten garai hartan, Saizarbitoria, serioagoa zena, Arantxa Urretabizkaia, *Zergatik panpox*, gu flipatuta, orri batean zakil bat deskribatzen zuen, zakil morea, eta gu, hau egitea, posible da? Ba bai, begira, posible da zakil bat deskribatzea. Orduan horrela izan zen deskubrimendu aroa. eta liburu hori izan zen deskubrimendu aro horren emaitza. Nik uste liburu hori, ez dut nik geroztik irakurri. garai hartako liburu haien estiloa imitatu nahian edo idatzita egongo dela. Idazle baten lanik zailena izaten da estilo propio bat edukitzea edo estilo propioa garatzea denborarekin, hasieran ez duzu estilo propiorik ez ezer. idazteko gogoia daukazu, kontatzeko gauzak, eta egoa barruan, demonstratu nahi duzu balio duzula, gauza asko. I hori izango da liburu hori.

**Ordutik, gutxienez hogeita sei lan argitaratu eta milaka lerro han eta hemen. Oso bestelako idazlea zara gaur egun? Zerlan aldatu zara?**

Asko idatzi dut Denborarekin ikusten joaten zara zerk funtzionatzen duen eta zerk ez. Askotan liluratzten zaituen liburu bat irakurtzen duzu eta hori imitatu nahi duzu, gero, igual, estilo horrek zure hizkuntzan ez du funtzionatzen edo kontatu nahi zen istorioarentzat ez du funtzionatzen estilo horrek eta orduan konturatzen zara oinarrizko gauza batzuekin: bata da, hau Anjel Lertxundik ere esan izan du, liburu bakoitzak edo istorio bakoitzak here estiloa eskatzen duela. Ezin liteke plantilla bat eduki estilo moduan eta harekin egin guztiak Ez. Istorio bakoitzaren ezaugarriak eskatzen du estilo berezi bat, eta horrek bihurtzen du zaila idazlearen lana, beti ari zara estilo bat sortzen. I z da arotz baten teknika aurretik mahaiak egiten dakiena eta mahai guztiak teknika berarekin egiten dituen. Zuk hizkuntza erabiltzen dakizu, gutxi asko hizkuntza hori menperatzen duzu, hitzak, sintaxia, baina gero liburu bakoitzari sumatu behar diozu zer estilo etorriko litzaiokeen ondo. Batzuetan asmatzen duzu eta beste batzuetan ez. Arrakasta duten liburuak dira asmatu egin duzulako estiloan, istorio horri zegokion estiloan, eta besteak ez. Gauza intuitiboa da. Horrek umiltasun handia ematen dizu. Liburu arrakastaduna egin baduzu, horrek ez du bermatzen hurrengoak ere horrelakoa izango denik eta until bihurtzen zaitu. Esaten duzu: orain zerotik hasi behar naiz berriro, ea istorio honi zer estilo dagokion. Hor fondonoan betikoa dago, gerra bat, mamiaren eta fondoaren artean, hau askok aipatzen dute. Nola uztartu biak? gerra hori liburu bakoitzaren aurrean planteatzen da.

3. *Kcappo*, Irene eta *Krisalida* trilogiarrekin egin zinen idazle ezagun. Oso urruti daude Eñestoren, Lauraren, Santosen, familiaren eta Belamendiatarren istorio gogorak Pakoren eta gaur egungo literaturatik?

Noski, Ni neu nago urrun pertsona harengandik, garai hartan oso gazterik hasten ginen idazten: Zabala eta Aranbarri hogeita bat hogeita birekin, Atxaga ere oso gazterik... ia denak hogeit urterako liburuak ateratzen zuten. Gero batzuk idazle munduan jarraitu zuten eta beste batzuk ez. Horrek arriskuak dauzka, noski, eta arriskua hori da, hogeit urterekin duzula urrun dago, gero eboluzio personal

ikaragarria gertatzen da zure bizitzan eta orduan garai hartako interesak, garai hartan liluratzten zintuen istorio mota, hori dena oso urrun geratzen da. Idazleena oso ofizio berezia da, oraindik ere berrofeita hamar urte inguruan bazabiltza, ohitura dago idazle gaztea dela esateko, nobela ematen zaio hirurogeita hamar dauzkan zahar bati, berrogeirekin oraindik gazte hasiberria izan daiteke, eta gu berrogeirekin ia jubilatzeke moduan geunden, ez baginen pixka bat berrasmutzen. Burua eta espiritua berrasmatu, garai berrietara egokitu eta liburu horiek oso urrun daude noski, nik ez nuke orain irakurtzen hasi nahi. Tortura bat izango litzateke ziur asko. Liburu bakoitza garai baten erretratua da, hau idazle guztiei gertatzen zaie, nik badakit, badira liburuak Atxagak ere begien aurrean ikusi nahi ez dituenak, bere gaztetako liburu batzuk. Andu Lertxundik ere bai, denek dauzkate. Liburuak da garai bateko pertsona horren erretratua, garai hartan bera pasatzen ari den gauzak, hontara edo hartara, zuzenean edo zeharka jasotzen dira liburu horretan.

Bizitza eboluzioa denez, arrisku hori beti egoten da,

**Idazle emankorra izan zara, genero guztietan aritu/arena. Poesian ere aritua zara. Istorioak kontatzen dituzte zure poemek eta irakurleak, badu bertan sartzeko aukera. Istorio oso pertsonalak sarri.**

Ni poesia idazten berandu hasi nintzen. Ni prosan hasi nintzen eta poesian oso berandu, hogeita hamabost hogeit hamasei urterekin argitaratu nuen nire lehen poesia liburu, *Castletown*, 1996an. Niri poesia narratiboa gustatzen zitzaidan. Poesia klase asko daude, poesia intimista, subjektiboa, amorosoa, surrealista, iluna, kontzeptuala... Niri poesia narratiboa gustatu izan zait asko. Poesia narratiboa gehiago landu izan da ipar ameriketan eta. Keruak nobela egin zuten baina poemak ere egiten zituen, han bazeuden jende bat poesia narratiboa egiten zuena eta niri hori gustatzen zitzaidan, kazetari naiz eta beti barruan istorioa izan dut. Kazetaritza ikasi nuen eta horrek idazketari buruzko ikuspegi praktikoa eman zidan. Gauza bat da zu etxean egotea eta zure gogoetak idaztea zuzentzat baina kazetaria bazara, kazetari moduan norbaitentzat idazten ari zara. Zu kazetaria zara eta irakurlea daukazu. I horrek zentzu praktikoa sartu zidan: idaztea, norbaitentzat idaztea da. Nik hori sinisten nuen. Iristen ez bada, hor ozlopo bat egon da bidean, eta oztopo horren ardura guztia zurea da, idazlearena da. Horrekin lotuta, niri poesia ulergarria eta narratiboa gustatu izan zait. Eta kazetarit/ak, beste maxima bat sartu dit barruan, idaztea istorio bat kontatzea da, beti, hartuko du forma zuzenagoa edo forma lausoagoa, edo engainatuko zaitu, baina idaztea beti da istorio bat kontatzea, zerbait kontatzea. Sentitzen dena ere istorio bat izan liteke, gertatu dena eta sentitu dena askolan gertaera bat bezala bizi baitugu. Nire poesia horrela definitzen dut.

**Ipuingintzan Auto-stopeko ipuinak izan zen argitaratu zenuen lehenengoa. Liburu originala iruditu zaigu. Irakurleari larru askotan jartzeko aukera ematen dio.**



Grain ikasle, orain taxista **edo** organujole. **Izenekin beti.** Idaztea irakurtzea **bezain dibertigarria** al da? Baai, nik beti gozalu izan dut asko idazten. Asko eman dit Radira idazleak esaten **dutenak** sufritu **egiten** dutela, idaztea **sufrikarioa** dela. nik ez dut ulertzen. Begira. gaizki pasatzeko ni ez noa ezertan **hastera**. Bizitzaren aurrean nahiko ikuspegi hedonists izan dut, **disfrutatzea** gustatu izan zait. Niri ez zait **gustatzen** egunero goizeko zortzietarako **lanera** joatea, horri ihes egiten saiatu izan naiz. Hedonismoaren baitan idazten disfrutatzen duzu edo **bestela** ez du **merezi**. Nik **hori** sentitu izan dut beti **ela** lortu **dut**.

Eta liburu horren (*auto stopeko ipuinak*) garaian, nik erreportajeak egiten nituen, herriz herri ibiltzen nintzen, elkarrizketak egiten, eta han **gelditzen** zitzaizkidan eta egunkarian **argitaratzen** ez nituen istorio asko ziren. **normalean** jendeak grabagailua itzalitakoan kontatzen dituenak. Elkarrizketa **bukatzen** da, beste ordu **erdia** gertat/en zara pertsona horrekin, eta **hilketa** baten istorioa kontatzen du. ez **dakit** non entzun zuena. Nik horiek **guztiak jasotz.cn** ditut eta liburu hori. **kazetaritza** erabili ez nituen istorioen bilduma dela esango nuke. *Material de desecho*, cgunkarirako **balio** ez zuena. Nik esan nuen, **balioko** duzu **literaturarako**, orduan **berrelaboratu** nuen, eta fikzio bihurtu.


Zu hasi **zinenetik** euskaltzaindiak erabaki **asko** hartu **ditu**. **Hizkuntza** hitz idr mulatu edo estiloa **moldata** duzu **bidean**?

Eta jarraitzen du! **Gure** tortura hori da. Denon estiloa aldatu du. Sarrionaindiak ilargia hz idazten zuen eta jarraitzen du, Nik uste dut halako **keinu** bat bezala **mantendu duela**, berak badaki h gabe dela baina nik uste dut jarraitzen duela hrekin idazten (h)ilargia. Eta hor **antropologia** zegoen esaten **zelako** ilargia zela **hilda** zegoen **argia**. Ilargiak ez zeukan **berez** argirik, **hilda** dago **planeta** eta eguzkia **erreflejatzen** du. Euskaldunak hori bazekien, teoria antropologikoa zen.

Hitzekin gerra bat **egoten** da. **Hitz** asko daude euskaraz, baina nola zatituta gauden, lurralde **bakoitzean** garatu dira **hitz** partikular batzuk eta idaztea, nolabait, gauza estandarra egitea da. dcnclzako **balioko** duen zerbait. Saiatzen zara, handik eta **hemendik** estandarren diren **hitzak** **ekar**-tzen, arriskua izaten da oso estandarrek ez diren **hitzak** **erabiliz** gero. tclsua ulergaitza bihurtzeko. **Esaldi** batean hiru hitz/ **ezezagun** jartzen badituzu. irakurleari sekulako oztopoa jartzen ari zara. Baina esaldi **batean**, ondo kokatua dagoen hitz ezezagun bat **jartzen** haduzu. testuinguruaren **arabera** ulcrgarri **gerta** daitekeena, irakurleari **aportazio** bat egiten ari zara. Hori zen gure **lana**, hitz ezezagunak, oso ohikoak ez direnak. **inguratzea**, **babestea**, oztopo izan ez zitezen.

Hitz asko **deskubritzen** joan gara. Nik **badaukat** ordenagailuan **karpeta** bat. nire **hitz** pertsonala, gustatu zitzaizkidan **hitzak** **bildu** ditut bertan, liburuetatik. egunkarietik...

Bizitza **eman** duzu idazten, izan idazle izan kazetari.



**Biek** dute **sorkuntzarako** aukera handia. Zure azken **lanean**, **Independentziaren** paperak lanean, biak u/tartu dituzu. Dnkumentazio **lan** handia egin duzu. Idazleak **erabakitzen** du halako lan bat egitea eta kazetaria lanean jartzen du, edo **alderantziz** (kazetariak aurrez egindako lana **baliatzen** du idazleak)?

Lehenengo kazetaria jartzen da martxan. Hasi nintzen irakurtzen, gauzak **biltzen**, **hitzaldiak** crc ematen nituen, eta bertan jendeak esaten zitucnak jasotzen nituen, **teoriak**, istorioak... lehenengo. beraz, kazetaria izan da. **Ikerketa** kazetaria, gure historiaren **ikerketa** egin duen **kazetaria**.

Idazten hasi nintzenean agertu zen idazlea. Ez nekicn **tonua** idazten hasi nintzenean. **ironikoa**, **indignatua**, **biblikoa**... hori behin **hasita** ikusten da. Idatzi **ela** irakurri. irakurtzen duzunean **konbentzitzen** ez ba/aitu ez da tonu **egokia**. **Berezia** da idazle **langintza**, zu zara egilea eta baita **galbahea** ere. gainerako **lan** **gehienetan** ez da hala **gertatzen** **eskari**/agindu bati **erantzuten** zaiolako. Ida/teak berak biak ditu, zuk idazten duzu eta ondoren ikusi ondo dagoen edo ez. Kazetariak lana egin zuen **eta** ondoren. idazleak hori **txukun**, **polito**, eder jarri.

**Iritzi-artikulu** asko **idatzi** dituzu (baita **horietako** batzuk **liburuan** idat/i ere). Nola **erabakitzen** duzu gaita **hainbeste** idatzi behar izanda?

Gai asko eta arratsaldeko seiak, **emateko** ordua. Agobiantea da **askotan**. Ciaiak asko ibiltzen dira human **buelbaka**, azken batean enpatia pixka bat sortzen dizun zerbait izaten da. **izan** **interesa** edo amorrua. Zerbait partekatu edo salaketa

egin. Saiatzen nintzen beti kexaka ez aritzen, tartekatzen. Azken batean motibazioa ere behar da, zugana heltzen den zerbait. Garcia Marquezek esaten zuen berak hamabost urtean barruan izaten zituen istorioak maite zituela, istorio bat barruan sartu eta urtebetera ahaztu dudanean, banekien istorio horrek ez zuela merezi tratamendu literarioa emateko. Motibazioa behar da, eta motibazio horrek zure nortasunarekin zerikusia dauka, eta zu, bizitza honetan pasatzen ari zaren momentuarckin. Momentuaren arabera gauza batzuek emozionatzen zaituzte eta beste batzuek ez, eta emozio hori transmititzen saiatzen zara.

Gai polemikoetan **sartzeak** eta **handik** eta **hemendik hitzaldiak** ematen **ibiltzeak** beste **maila** batean kritikatu **izateko** aukera ematen du. Nola **bizi** ditu idazleak kritika **horiek** guztiak?

Modu naturalean bizi dut. Nik **premis**a bat daukat eta argi ikusi nuen idazten hasi **nintz**enean. Zuk zerbait idazten duzunean, kritika onak zein txarrak jaso ditzakezu, hori bat, eta irakurleari ere, onartu diot bere **eskubidea**. Zuk zure barruan, zure buruarekin **hitzarmena** egin behar duzu, irakurleak **eskubidea** dauka **bere iritzia** emateko, batzuetan polita izango da eta besteetan kontrakoa. Nik hori **onartua** daukat eta gustatzen zait, **Hitzarmen** hori egin baduzu, kontrakoa direnean ere ez dira mingarri izango, ez zara **dependiente**, ez **gehienetan** behintzat. Min hartzen duena cgoa da, hala diote budistek, egoak hartzen du min, zuk ez duzu **hartzen**. Zure egoak izan nahi du **tartean** norbait famosoa, eredugarria, saritua. Zuk ego hori pixka bat apaldua **baduzu**, hau Benitori jaso diot, ez duzu min hartzen.

Polemikoa izatea eta, nik institutuan irakasle berezi asko izan nituen, eta han jaso nuen **jarrera**, **jarrera existentziala**, **alegia**, gauzak **aztertu**, gauzak **kuestionatu**, hori erakutsi ziguten. Zer esaten du mezu honek? Zein da **helburua**? **Galbahe** batetik pasatu eta hortik pasatakoak izaten dira nire protcsta asko baina baita aldekoak crc. Beste **teoria** batekin egiten dugu **topo**. Zertara **etorri** gara mundu honetara? Hemen joera handia dago **tradizioaren** munduarekin, **aurrekoek** egin **zutena** errepikatzearekin. Hori **bizitza** pertsonaletara ere **trasladatzen** da, jendea ezkontzen da... politikara ere bai, **alderdien** jokabidea, denek hotoa **alderdiaren** arabera eman... hori niri ez zait gustatzen. Guk **dena** errepikatzea **bizitzako** modu inozoa iruditu zait. Horregatik **saiatu** izan naiz gauza askori buelta **ematen**, eta ikusten nola hobelu **zitezkeen** edo nola **hautsi** zitezkeen **inertzia** batzuk. Hori da pixka bat **nere** artikuluetan dagoen **fondo filosofikoa**.

Behin **lagun** **batek** Xabier Silveirarekin alderatu **zintuen**: estilo ezberdinean baina biak omen zarete **“Supiztaileak”**.

Nik Silveira irakurtzen dut, asko **gustatzen** zait, aspalditik ezagutzen dut. Nik **uste** dut hobea dela sua piztea itzaltzea baino. Sua pizte hori **espalatzea** da. Gizartea bera saiatzen da **hezkuntzaren** bidez jendea lokartzen eta **txikitatik** programazio bat sartzen **digute**, **tori**, hauek dira bizitzan ondo daudenak. Hor balore **pila** bat sartzen **dizkigute**, eta gaizki

zeintzuk dauden esan. Horiek zureen **ukapena** dira. Sinis-tea bera **inteligentziaren** kontrako mugimendua iruditzen zait **cl**a **gizarteak** nahi du zuk zerbaitengan sines dezazuu, **alor** guztietan. Lokartzen horren aurka **esnatzeko** modua zein da, **suabe-suabe** abestuta ez da **esnatzen**, esnatza zarata aterata da, **cdo** masaileko **kontzeptuala**. Orain arte hortan sinistu dugu, **nik** **uste** ezetz, **pentsa** ezazu, akaso **baiezkoan** geraldura zara, baina izan zaitez zu ondorio honetara iritsi dena. Hori da **bidaia** interesantea eta hori egiten saiatu naiz ni.

Antzerki **lan** **bategatik** **saria** **2009an**. **Todoterrenoa** zara? (**lehen** antzerki lana)

Oso inkieta da nola el gauza asko gustatzen zaizkit. Idazteko makinan 11 urterekin ikasi nuen idazten, bi **hatzekin**. Ikasi nuen pianoa, **kazetaritza**, gidoigintzan aritu naiz, **margolaritza** gustatzen zait asko, **artea**. Marrazten ikasi dut eta **egunen** batean denbora eskainiko diot. Antzerkia gustatzen zait, zinca, etxean lauhun **pelikulatik** gora ditut.

**Idazle** batentzat oso erraza da **ikastea**, ikasteko behar duzun gauza bakarra **liburu** bat da. Antzerkia nola idazten den? Nik ez zekien, **antzerkiliburu** batzuk hartu nituen, Arthur Millerren bat. Eric manuel Grin... **hiru-lau** antzerki liburu hartu nituen eta azterlu egin nituen. 29, orrialdean bira hau ematen dio. orain artean **beste** zerbait **zen** eta bira hau eman dio. **Obrak** **bederatzi** bira zituen, liburu horiek aztertu nituen **antzerkia** nola **idatzi** jakiteko. Nobela **historikoa** **idatzi** nahi haduzu, hartu bat eta aztertu, pertsonaiak nola **deskribatzen** diren, gertacrak, kapituluak non **amaitzen** diren, **aztertzen** haduzu ikasi egiten duzu. Nik antzerkiarekin hori egin nuen eta teknika pixka bat ikasi nuen, ez **dut** oso ondo **menderatzen**. Hori izan da nire **bi**dea. **ikastea**.

**Idazlea** naiz, **ibilbide** batekoa eta baina ikasle ere banaiz.

**Biografiak** ere idatzi dituzu. **Erraza** al da idazle batentzat **enkarguzko lan** **batean** **gogoz** **aritzea**?

Bai. Zu **motibatzen** bazaitu, bai. Hor **enkargu** bat eta diru bat **egoten** da atzean, dirua ez da aski **motibazio** pertsona horrek zugar ez badu ezer pizten. Nik landutakoak nik miresten **nituen** pertsonak izan dira, aktoreak izan dira, **bertsolari** bat...**gero** **ordainketa** etortzen da.

Kontrakoa da hau. Zuk idazten **duzunean** zure buruarentzat idazten duzu eta ez, dago **kobraketarik**, ez dakizu **etorri**ko den crc. Liburua argitaratu ondoren, salmenten arabera **igual** **etorri**ko da **kobraketa** bat, edo ez. Sari bat **etorri**ko da edo ez. **Alde** horretatik arrisku ekonomiko handia dauka baina nola zuk hain **barruan** sentitzen duzun gogoia, ezin diozu uko egin horri eta horrek bihurtzen zaitu **gizarte** honetan pixka bat **erromantikoa**. Erromantikoa da, **egungo** **gizarte** kapitalista honetan, zerbait egitea gero dirua emango duen ala ez jakin gabe.

Aspaldi ez duzu **narrazio** edo poesiarik argitaratu. **Zaila** da ohiko idazkiekin u/tartzea? gaiak **amaitu**



egiten zaizkigu?

Fikziotik urruntzen joan naiz azkenaldian. Egin dudak bakarra haur literaturalurako ipuin batzuk izan dira, cdo antzerki horiek. Baina badira zortzi bederatzi urte fikziotik urrunduta nabilela. Modu naturalean gertatu da, bizitzak berak eraman nau beste interes batzuetara. Azken urte hauetan saiakera asko irakurri dut, jakin nahiak eraman nau saiakera asko irakurtzera, saiakera oso desberdinak, biografiak, budismoari buruzko liburuak, ulertu nahi nuen pixka bat hobeto bizitzeko cla honetarako ez zidan balio nolabait gure korpus teorikoak. Mendebalekoa oso judeo-kristaua da. filosofoak ere oso arrazionalak dira denak. ez diote lekuri ematen bizitza materialaz aparteko beste misterio bati. Orduan nik susmatzen nuen falta hat, gauza espi-ritualak ulertzeko beste modu bat cla horren ondorio modu natural batean horrek eraman nau saiakerara.

Iaz bi saiakera atera ditut, bestea Benitori buruzkoa da Mikel Markezekin batera, hartan alderdi asko daude. Alderdi espirituala nik idatzi nuen, politikoa Mikel Markezekin idatzi zuen, politikoa nik gordea neukan, kartutxoa bezala, neuk erabili nahi nuclako nire liburuan. Politikaz asko ikasi dut Benito Lertxundirekin baina hori nire liburuan erabili nahi nuen.

Idazle eskolan aritzen zara irakasle. Zer iruditzen zaizu jende multzo batek idazle ofizioa ikasi nahi izatea?

Hori gauza berri da hemen baina AEBetan eta Europan hamarkadak daramatzate. Hemingwayk esaten zuen ez dutela ezertarako balio, idaztea afizio pertsonala dela. bakartia, eta norberak gauzatu dezakeena.

Pixka bat arraroa da baina asko aporteratzen duela iruditzen zait, norbanakoen zalantzei eta asko aporteratzen dio talde bat izateak. Azken batean kezka partekatze gune bat da eta egon daitezkeen arazo narratiboak konpontzeko mo-

duak ere ikusten dira. Askolau klascan pasa dugu testu bat aztertzen denbora pila bat. hau horrela jarriko baze-nu... zergatik ez duzu hau aldatzen... eta gero esan izan diet eskolan, guk gaur egin dugun hau zuk egin beharko duzu bakarrik zure etxean. Idaztea hori da, zuk idaztean ez duzu izango talde bat zure ara/o eslurkuralak, narratiboak, semantikoak konpontzeko, zuk zeuk egin beharko duzu. Ez zarete ziur egongo erabakitakoa ona den edo ez. seguritate falta beti izango da baina aurrera egin behar da beti. Hori uste dut direla klase hauek, bakoitzaren lanaren interpretazio kolektiboa. taldean, jakituik gero zuk egin beharko duzula.

Asko gustatzen zait klaseak ematea. Lilian aurretik nik neuk prestatu behar izaten ditut eta gogoeta bat eskatzen dit horrek. Asko ikasten dut gogoeta hori eginez eta. bes-tela ez. nintzateke horretara jarriko. Feedbacka egoten da gainera. nik nire gogoeta semantikoak zein hcsclakoak botatzen ditut eta ikasleek erantzuten dute haien iritzia.

Aholkurik ida/le gaiei?

Hori zaila da. Lehengoan Ibarretxeri galdetu zioten hitzaldi batean zer aholku emango liokeen Urkulluri eta erantzun zuen: aholkurik ez, berak badaki zer egin behar duen, gai da eta oso ongi egingo du. Nik ere hori esango nuke, aholkurik ez. Aholku bat ematekotan Juanma Ruizek niri esandakoa: bista luzea, pauso motza eta malaletxea. Gauzen sakontasuna ikusi, sintaxi laburra, ez galdu sintaxi luzeetan. Malaletxea ezinbesteko gatz da, ezinbestekoa lestua bizia izateko. Testu naif asko irakurtzen dira edo musikan new age. denak onak garel-a aldarrikatzen duten testuak. niri bizitasuna gustatzen zait.

Idazteko behar den gauza bakarra da. konfiantza zure buruarengan, pentsatzea badituzula kontatzeko gauza



interesgarriak eta badakizula horiek kontaktzen. Horixe aholku nagusia: konfiantza zure buruarengan eta garbi eduki idazlea dela norbaitentzat idaztea, beti. niretzat hori da muga idazle amateur bat edo bere gustuz idazten duenaren eta afizio handiagoa duen idazle baten artean, hori da a idea. Idaztea norbaitentzat idaztea da eta horrek zuri autoexigentzia handituko dizu, norbaitentzat ari zarela pentsatzen duzulako.

Lagun ie/aguzu, zer behar du poema on batek zure ustean?

Inoiz egin didaten galdera zailena da. Poema on batek beharko du erritmoa, arnasa hartzen lagunduko dizun zerbait. hitzen arteko oreka bat. Olatu bat bezalakoa izan beharko du, eta beharko du eleganzia eta deskribatzea ezinezkoa den duendea, flamenkoek esaten dutcn duendea. Pertsona batzuk bakarrizketak esaten ari direnean duendea daukate, beste batzuk ez, non dagoen ez dakigu, haren begiradan, mugitzeko moduan, pausokeran, haren azentuan, baina nonbaiten badago duende hori. Poema batek crc duendea behar du baina ez, dakigu esaten non. Horregatik da zaila erantzutea.

Eta narrazio on batek?

Narrazio on batek niretzako kontrol narratibo milimetrikoa behar du. Narrazio on bat da eta hau Cortazarrek esaten zuela uste dut, Argentinako Julio Cortazarrek, erlojeriako mekanismoa bezalakoa, denak perfektu funtzionatu behar du. pie/a bakoitzak. Pie/a batek beste pieza batera eraman behar zaitu. Erloju batean pieza batek klak egiten du eta eramaten zaitu besle pieza batera, besteak buelta ematen du eta bestea jotzen du, azkenean pieza multzo txiki bat da. perfektua. Definizio polita da narrazio batentzat. Osagarri guztiek besteak mugiarazten dituzte eta narrazioaren haria eramaten dute, batetik bestera borobildu arte.

Eta idazle on batek?

Lana asko. giroitze pixka bat, eta gaur egun esaten dute behar dela hedabideetan ondo agertu, ondo atera. baina hori lanaren promozio zerbait da, Pertsona guztien barruan beti egoten da talentu bat eta talentua batzuetan nagusiagoa da, besteetan ahulagoa da, asko saiatzen dira

talentu gutxi izanda idazten eta lan asko egin behar dute eta beste batzuk talentu doblea izanda lan berera heltzen dira lan erdia eginda. Inportantea da bakoitzak identifikatzea zerlarako daukan talentua, jakitea zu zertarako zaren ona. Futbolariak denek jakiten dute zertarako diren onak, aurrelari, erdilari, atzelari, denek jakiten dute. Idazleek jakitea zailagoa da baina detektalu egin behar du.


Afizioa eta ofizioa beti batera doaz? Beti bide beretik ala banatu egiten dituzu noizbait, nolabait?

Batzuk argi bereizten dute bizitza laborala eta bere idazketa, beste batzuek hori dena nahasian bizi dute. Nik holaxe bizi izan dut beti. Inoiz ez dut izan anbiziorik postu on bat lortzeko, dim asko irabazteko. Ni ez nau emozionatzen diruak. Orain miloi bat euro emango balidate nagoen bezala egongo nint/ateke. ez nintzateke euforiko jarriko ela lanpam botila eskatuko. Beti utzi nau hotz dirua irabazteak. Bizitzan guztia joan da lotuta, afizioa ofizio bihurtu da, gehienetan eman dit bizitzeko, momentu batzuk txarrak izan dira baina gairitu ditut. Kazetaritza, literatura, dena nahasian, elkarraren nahasian joan dira. Bizitza bat da, bizitzeko dirua behar da. baina ahal den neurrian dena bateratasun batekin eramaten saiatu naiz, idaztea bihurtzen nire ofizio, baina ez, izaten idaztearen mertzenario ezta ere.

Miryan Irastorza  
Idoia Gereñu

Memoriaren ganbarara igo naiz  
Inoiz behar izan ez ditudanak botatzeko.  
Rol gordetzailearena ez datorkit ongi.  
Ernegatzen naiz; kendu traste zaharrak!  
Noizbait balio handikoak, baina orain zama.

Usaindu ditut bazterrak,  
Susmoa nuen eta, kiratsik ote zuten.  
Aurrean ditudan gailu eta paper zaharrak  
Neronek ekarriak dira bertara,  
Denborak jan du, ordea,  
Inoiz izan zuten garrantzia,  
Zarama besterik ez dira orain,  
Antzinako zauriak sendatu ziren jada,  
Gehiegi bete nuen motxila,  
Aurrera egiteko arindu behar dut bizkarra!



"Eskua eman nion agur esateko, eta nirekin geratu zen betiko."

"Bezperako prentsa irakurtzen duena lasaiago bizi da."

"Esadazu ezagutzen nauzula, eta arrotza bihurtuko zaitut!"

"Haren hortz distiratsuek ematen dute distantzia egokiaren neurria."

*Miren Usandizaga*

## GAUZEN EGIA

Ez dugu oinik lanpasean pausatu  
ez da lorratzik ez arrastorik  
haizeak  
haizeak garamatza hegan  
ta ez gara ezer  
zeruan galduriko puxikak baino ez

Gauzen Egia lurzoruan baztertu dugu  
Sarriren liburuak berarekin ahaztu  
eta noizbait paratuko direlakoan  
astronauta bidaztiei utzi diegu bizitza  
berunezko bizitza  
poesia eta filosofia.

Haiek bederen mira daitezen  
kobazulotik irtenda  
lurrean amestearen ederrez.  
Haiek bederen arnas daitezen  
begiramen segundoetan  
duintasunaren epelez.

Ez dugu oinik lanpasean pausatu  
ez da lorratzik ez arrastorik  
haizeak  
haizeak garamatza hegan  
eta ez gara ezer  
zeruan galduriko puxikak baino ez

Eta bihar  
edo gero  
hori ere ez

## URTEMUGA

Gauerdi isila unibertso bakartian,  
gitarra ezezaguna lagun,  
neuk erosiriko kandelak eta  
irribarre bat mahai gainean.  
Bihar, gaur da jada,  
kantari hasi dut eguna,  
eta ni, urtebete zaharragoa naiz.

Goizaldeko bostak eta hogeita hamabi,  
lo sakonetan akaso gautxori,  
bi arrainen uretan nabil eta  
ez da mugarik ageri.  
Jaiotze ordua da jada,  
benetan ari naiz, eta ametsetan,  
eta ni, urtebete zaharragoa naiz.

Telefonotan bazkari eta afariak,  
urdailean egon ezinik kirioak,  
opariak baino nahiago akordatzeak,  
muxuak eta noski zelebrazioak.  
Eguna bera da jada,  
bizi naiz bizi lehertzeraino,  
eta ni, urtebete zaharragoa naiz.

Gauerdi isila logela mortuan,  
denbora eta ni, norgehiagoka,  
zoriondu nautenen zerrenda eskuan,  
ahaztu nautenena begini-nietan.  
Gaur, bihar da jada,  
akabo nire eguna,  
baina ni, urtebete zaharragoa

# MUTU

Mutu geratzen zaizkit hitzak zuri begira

Mutu  
zuri begira  
begi-ninien dardaretan  
urrezko amuaren armonietan

mutu  
zuri begira ezinetan  
zuri begira urratsetan  
zuri begira ahapetan  
ezereza idatzi bitartean

mutu  
zuri begira denboretan  
zuri begira literaturetan  
historia diren istorioetan  
ezereza idatzi bitartean

Eta mutu geratzen naiz neu ere zeuregan

Mutu  
itzaletan blai  
ortziko esne gainetan  
ilargiko lau paretetan

Mutu  
eskuetako desirak usainduz  
arnaska oroitzen zaitudanetan



(izenik  
gabea)

*Gorri naiz izatez  
kondaira maitatuen esperoan  
bizi nahiak erakarrita  
odola berpizten zaidalako*

*Hori naiz izatez  
oholtza eguzkitsuen  
fantasiako lainoetan  
lagun sentitzen naizeiako*

*More naiz izatez  
erne sortuz geroztik  
giza antigoalenez noizbait  
errespeta nazaketelako*

*Arrosa naiz izatez  
errealitate ukatzeetan  
neure egia aurkitu nahian  
amestu dezakedalako*

*Urdin naiz izatez  
amaigabeko arnasaldietan  
mundu herriaren usaina  
aske bihurtu dudalako*

*Berde naiz izatez  
hostoen antzera  
erori artekoan ere  
zutitu naitekeelako.*



wondershare™  
PDF Editor

Idoia Gereñu

# Amesgaiztoa

Bart amets egin dut

-amesgaiztoa erran nahi dut-

Kalera irteten ikusi dut nire burua:

zorua zapaldu ahala

milaka esku atera dira asfaltotik

-krisiaren eraginez gizartetik kanpo geratu direnenak-

Alde egiten saiatu naiz

baina ezin

Erori naiz

hatz anonimoek eskukatu naute

Lehendabizi

poltsa kendu didate

-han-hemenka sakabanaturik gelditu dira nire gauzak-

Gero

biluztu

eta zatikatu dute nire gorputza

Izerditan esnatu naiz

lkaratua

Kalera atera naiz

milaka esku altxa dia zorutik

*Carmen Valois*



## Urteurren

Egun hartatik,  
hurbil zaude,  
urrun joan ziren arren.

Egun hartatik,  
eskatzen dut arren,  
gogora nazazula bederen.

Egun hartatik,  
urteurren guztiak dira  
urte-herren.



## Zuri, **Mi**

Egunero, goizean goiz eta ilunetan  
bekaizkeriaz begiratzen nauen horri  
zuri.

Pozak eta gozamenak hileta-elizkizun bilakatu  
baikortasuna hiztegitik ezabatu duen horri,  
zuri.

Bakardadearen itzaletan kikildu eta  
besteen alboan gutxiesten nauen horri,  
zuri.

Askotan nire etsai menderaezin bilakatu  
eta min handiena sorrarazten didan horri,  
zuri.

Bai, zuri,  
ispiluaren aurrean zauden horri,  
Niri.

Haizea Gratarraga

## Gelako bisutsa

Gela itxi, hero, itoa,  
lanpara eguzki egina,  
mamurtutako haize etsia,  
izerdia, ohe egin gabea

Hotzikarak sorbaldan behera,  
euli ustel gose bat gelan barrena,  
irribarre goriak airean zelatan,  
elur maluta berdeak horma zokoetan

Musika errepikakorra argi-ilunekin dantzan,  
ahokada bat arnas jabe bila,  
bakardade neurtua,  
hutsune behartua.

Denboraren joan astuna,  
erlojuak ihesi,  
orri zimurtuzko metak,  
desjabetutako esapideak.

Otoren tximeleta eriak elkar laztantzen,  
lipartutako sentimenduak,  
ideia erdibituak,  
ideia lausotuak.

Poema erditu ezinaren usaina dario



## Hitzez ero

Bart,  
herensuge biluziak ikusi ditut.  
Hz zuten ahotik surik kanporatzen.  
Ke hari fiimifio bat besterik ez.


Bart,  
hiru hankako zezen suzkoak ikusi ditut.  
Herensugeak zituzten jo muga.  
Bolbora usaina aditu dut baina txinpartik ez.

Bart,  
ahate oinezko emakume lerden biluziak ikusi ditut.  
Zakilak ahoratzen zituzten,  
baita gizon ustekoa ere.  
Erreka hotsa sumatu dut baina urik ez.

Bart,  
ez dut ametsik egin.  
Lokartu aitzin betikotu naiz, ez esna ez lo.

Gaur idatzi ditut hit/ok,  
une batez bada ere, nire senaren nagoela irudikatzeko.

Baina ez dut luzatzeko betarik,  
herensuge biluziak ditut zain ate ertzean eta.



## Sarea(k)

Iziotu dira kale argiak,  
kale ertz nabarrak lohiturik ageri dira.  
Gizonezko bat zigarreta ketan, **banku** batean eserita.  
Liburu bat eskuan, koaderno gorria altzoan.

Errekako harrabotsaren musika, **eszena** puztuan.  
Begurada jaso eta zerura begiratu du une batez.  
**Ilargiak**, hodei belztuz ehotutako azpiko gona jantzia du.  
Liburua itxi eta koaderno odoleztatua ireki du.

Argizko fokuak ñir-ñir egin dio arrotzari.  
Eskuez idazten du, airean; koadernoaren itzalpean,  
errainu iheskorak dira idatzitakoak.  
Erruz idazten du, erruz galbideratzen ditu hitzak. **Koaderno ustekoak.**

Koaderno itxi du. Beretzat gorde ditu izkiriatuak. Airean hedatu dira kopia perfektuak.  
Kale argi herdoilduak izan ditu testigu bakarrak.  
Argi keinukada luzeek antzetzokia zehaztu dute.  
Aire idazlea ilunpean **galdu** da.

Hitzezko amaraunak gelditu dira bere tokian.  
Etorriko den **edonor** poema hilkorrez gatibatzeko zain.

## Zure etxea

Gurin **hezezko** habeak ditu zure etxeak.  
Esku oihalez josi dituzu eta izerdi zahartuz lurrindu.

Izotzezko hozkailua da zure **etxekoa**, beroak urtzen duena.  
Korridoreetako **hormak**, irakurri gabeko egunkariez eginak dira;  
  **lerro** buruak, guztiak, guraizez erauziak.  
Irribarre ainguratuak **margotu** dituzu zure logelako **hormetan**, okre kolore **astunez**.  
Zure **ohea**, bidean galdu zenituen **bilo** gorriez hezurtua dago. Ohe burukorik ez.  
  Burua gorputz enborretik altxatzeko **arrazoirik** ez duzu aurkitu oraino.

Zure etxea zurea da baina ez **luke** hala behar... Begiak itxi eta ez da desagertzen.

Gaur goizean joan natzaizu bisitan.  
Amultsu ireki didazu **atea**.  
  Elkarri itsatsitako poema liburuek osatzen duten ataza  
  **herabea**, soka gorrizjosia.

**Eznauzu** sartzera gonbidatu. Nik ere ez nuen sartzeko asmorik.  
Jukutrizko etxola baita zurea. Lokatzezko zoru urduria duena.

Eta lokatzak, irentsi egiten du.

## ESTAZIOKO BEGIRADAK

Anonimoak gara.

Prestaketa landua, zertarako?

Anonimoak gara.

Oinezkoak korrika hara-hona,

tiketa hartu, komunerako buelta egin,

autobusa hartu, haien biziarekin aurrera.

Anonimoa naiz.

Kaletik pasatzen direnek ez dute barrura begiratzen.

ez dute kuriositaterik.

Anonimo ikusezina naiz.

Inork ez die nire takoiei erreparatu.

Inork ez dio nire kamisela tirantedunari eta gona molzari erreparatu.

Zenbakia baino ez naiz, zenbaki anonimoa.

Tiketak saltzen dituen neska baten atentzioa baino ez dut deitu.

Anonimo ezezaguna naiz.

Eguna autobusean ematen dutenek ere,

ohi baino segundo gutxi gehiagoz ez didate begiratu,

anonimo eroa naiz.

Eta Sarriren antzera aritu naiteke, beraz,

gainerakoak zelatatzen,

anonimoa bainaiz.



## BADATORJOATEA NAHI DUDANEAN

0)

Hondarra ahoan hortzetan krak  
ileak latz titiburuak ezten  
azala txiki geratu zait

sabela estu hesteak gora  
alua hotz oasirik ez  
barrua txiki geratu zait

basoan barea likatsu uzkur  
arrastoa atzean jario zuri  
zuloak txiki geratu zaizkit

ez ukitu berriz  
inolaz ere



(2)

Badator harian behera astiro fin-fin,  
badator nire gainera.  
Ez da eguzki izpia pausatu zitzaidanean bezala.  
Badator joatea nahi dudanean.

Irentsi nahi izango nau  
sarean itsatsita naukalakoan  
hala dela ez baneki bezala.

Belusezkoa duela azala esango dute oraindik,  
azalaren kontra igurzteko plazerak  
hotzikara eragingo ez balu bezala.

Badator harian behera astiro fin-fin,  
badator nire gainera.  
Badator esku hori, joatea nahi dudanean.

*Alaitz Andreu Eizagirre*

## EZ BELDURRIK IZAN

Besarkatzen bazaitut  
ez beldurrik izan  
izan baitu izan  
bukaezinak mugarik  
itsasoak ere -iruditu ez dirudien arren-  
amaiera duen lez.

Besarkatzen bazaitut  
ez beldurrik izan  
guztien begiradapean baden amen  
ezeroso  
ezegoki  
bakardade minez zaudelarik  
inperiorik handienak ere  
erori baitira  
inoiz.

Besarkatzen bazaitut  
ez beldurrik izan  
ito beharrea zaudela ematen dizun arren

arnasak ihes egingo dizula emanaga-  
tik ere  
ekaitzik bortitzenek ere  
lasaitzera egin dute eta  
beti -goiz ala berandu-.

Eta inoiz inon  
gogor  
indartsu  
gogoz  
besarkatzen bazaitut  
ez beldurrik izan,  
goizak -inoiz- hiltzera kondenatuko baitu  
gaua eta  
berarekin batera  
ametsak ere.

## ESAN

Esan  
neure izena esan  
behin eta berriz  
esan.  
Haserrean  
estasian  
harrikoan  
esan  
etengabe  
ametsetan  
zurrutean  
kutxazainean  
esan.  
Soilik horrela jakingo dut  
izan  
bainazela  
izan  
zuri esker.

## ULTRAMOREA

-2011-

**NANCY HUSTON****(Itzultzailea: Jon Muñoz)**

Bekatua, zigorra, debekua, blasfemia, barkamena eta libreta urdin bat, Guztiaren gainean, edo gainetik, hitzak. Hitzak eta etimologiak. Beti ere, gizartearen ordenatik kanpo eta, gehienetan, aske. Hizkuntza berria sortu baitu hamahiru urteko Lucyk bere libretan, 1936ko Kanadako erretratua egitean.

Nancy Huston idazle kanadarraren hamaikagarren lana den hau, Alberdaniako gazteentzako sailean argitaratu berri den nobela laburra dugu. Zorrotza. Ironikoa. Hunkigarria. Eta zigor kolpez josia. Batez ere, Lucy protagonista gaztea errebeliak eta espiritu kritikoa definitzen dutelako, hitzen aginte makila bere egin duenetik.



Ezkutuan, bere libreta urdinean.

Opariz betetzen gaitu gure Jaunak, *bai horixe*... Krisi ekonomiko larriak, lehortekak eta goseak jota dago Kanada, "Hauts katilua" besterik ez da. Lucyk bizi egin nahi du ordea, bizi eta kexatu, berekoi sentitu gabe. Aita artzain protestantearen sermoiek belarriak betetzen dizkiote egunero, baina badaki isilik geratzen "amen" esan nahi ez duenean.

Ezkontzak hau esan nahi du: *betiko, betiko, betiko*. Hitzematen dizut, *maitea*, zure ondoan *betiko* aspertuko naizela, *heriotza etorri arte*. Ezkontza soineko barrenetik ateratako zinta zuriak ez du eta deusik lotzen. Amaren begirada beti haserretuak eta *suminduak* erakutsi dio hori, amak ez baitu pentsatzen duen hori esaten; ez eta esaten duena *pentsatzen*, aitak agintzen duelako.

*Beauchemin* doktorea Albertara etorri berria da, *nonbait*. Ezusteko tatzak *hartzeko arriskuan* dago, *bazter hauetan parte ez oso oneko jende kopurua zenbateraino den handia jakiten duenean, bereziki*. Ez bakarrik *indiar*ak (...), *baita ukrainiar zikin mordo bat ere bai*. *Beauchemin* doktorea agertu zaionean, beharrezkoa zuen adiskidea aurkitu du. Ederra da, eta errebeldea. Solaskide berri horrek zabaldu dizkio are gehiago begiak, bizitzeko era baten oparia egin dio eta. Ukrainiar eta indiar nazkagarriak bizirik daudela ikasi du. Bera bezala, bizirik.

Eguzkiak igorritako izpi ikusezinak dira izpi *ultramoreak*. Horiexek beltzarantzen gaituzte, baina baita *minbizi*a sortu ere. Ezarritako ordenak bezala. Eskerrak gerizperik ere *baden!*

HOUSTON, Nancy, *Ultramorea*, Itzultzailea Joxan Muñoz. Alberdania, 2011.

*Alaitz Andreu*

Supermerkatuko apalategian aurkitzen ditugun gaiak trebetasun handiz kokatzen omen dira bertan. Ez omen da kasualitatea izaten produktu bat lehenengo apalategian egotea, edo azkenekoan. Antza, koloreek eta formek asko laguntzen digute erabaki ezinik gaudenean. Azkenean, bat aukeratu, eta arrastorik ez dugu izaten zergatik ez dugun ondokoa hartu.

Demagun bada, liburu-dendaren batean gaudela. Apenas ikusten dugu liburuek zer forma duten, edo zer koloretako azala... Ez dugu askorik ikusten. Justu-justu liburuaren lodiera, eta burua okertuz gero, izenburua eta egilea. Hortaz, seguruenik, gure lehenengo aukera zutabeetan jarritako txartelen arabera egingo dugu, literatura-generoari begira: ipuina, eleberria, biografia, saiakera... Nik gaur dakardan liburuak, ordea, hainbat zutabe eta txartel bilduko lituzke. Liburuaren atzeko azalak zerbait argitzen du: "Langai ona da, tesela, puska."

Anjel Lertxundiren *Eskarmentuaren paperak* liburua ekarri dizuet gaur. Ez da eleberria, ez da ipuina, ez poesia, ez biografia... Denak dira; denak batean!

Zenbatek galdu ote du liburu hau irakurtzeko aukera, apalategi egokian ez begiratzeagatik? Auskalo!

Kontua da, lehenengo orritik hasi, eta azkenekoraino, liluratu egin nauela liburuak; bai horixe! Eta lilura horrek bultzatu nau zuek zirikatzerara. Zuen irakurtzeko grina piztu nahian nabil, eta liburu honekin kale ez egitea espero dut! Halako aberastasuna du eta, Anduren honek! Orri gutxi hauetan baditugu: haurtzaroko pasadizoak, filosofia, eztabaidak, poesia, ipuinak, bertsoak, hausnarketak...

Hona hemen pasarte pare bat:

*NOBELA ON BATEAN* kontatzen dena bezain inportantea da -eta inportante-agoa- kontatzen ez dena, irakurlearen irudimenari oparitzen zaiona. (181.orria)

*Fikzioa egiten ari naiz, fikzioaren bidez jasoko dute irakurleek Zoaz internum, laztana nobelako sufrimendua. Baina nobelaren atzean dagoen gertakizun errealeko sufrimendua erreala izan zen, erreala da gaurko egunkariek dakarten hiru hiteten atzeko oinazea. (115.orria)*

*Barrena abailduta -eta nire idazle lanaren zentzuari buruzko galderak eginezekin diot nobelaren eguneroko idazketari.*

Liburuan hainbat idatzi mota daude, eta egoki josiak. Ikaragarritzko lana dago eginda; jostun lana. Zer ikusirik ez duten paragrafoak ondo lotuta, puntada solterik utzi gabe.

Genero ezberdinak irakurtzeko aukera ezin hobe da honakoa; gau-mahaitxorako liburu aproposa.

Nago ez dela inor aspertuko. Horrela bada, disfruta ezazue orri bakoitza!



Miren Usandizaga



## IDAZLE ESKOLAKO IKASLE ETA KIDEAK SARITUAK

**Xabi Lópezek** jaso zuen udan Nafarroan Haur-Antzerkiko saria euskaraz. 69 lan aurkeztu ziren sariketara. " Dena gezurra " gazteei zuzendutako lanarekin irabazi zuen saria. Xabi Lópezek. 2003an ere jaso zuen euskarazko sailean sari bera.

LASARTE-ORIAko XXVI. LITERATUR LEHIAKETAN irabazle izan ziren gure bi ikasle. Mikrokontakizunetan lehen saria Olatz Mitxelenak jaso zuen, aurtengo 1. Mailako ikasleak, *Orri kiribildua* lanarekin.

**Ekhñe Egigurenek**, 2012an Idazle Eskola amaitu zuenak *Taupadak* lanagatik irabazi zuen poesia saria A kategorian. Sari gehiago ere jaso du Ekhñek 2013an.

Alde batetik 2013ko Peru Abarka Saria. Aurretik irabazi du ibaita Pasaia Hiria XVI. Poesia Saria , eta harren harira argitaratu du bere lehen poema-liburua.

**Zuriñe Zubillagak**, 1. mailako ikasleak ere, Euskadi Irratiko Arratsaldekoa saioko Maite Dut Irratia lehiaketa. Saria Budapest-Praga bidai ederra.

**Iñaki Odriozola Susaeta**, Idazle Eskolako kide eta [www.idazten.com](http://www.idazten.com) orriko koordinatzaileak «Azken ordua» lanarekin Café Bilbaoko Antzerki eta gidoi saria irabazi du euskaraz, eta bertako webgunean dago argitaratua.

Beste alde batetik, **Odei Arregi** izan zen 2011-12ko II KARMELE IGARTUA SORKUNTZA BEKAko irabazlea, poema liburu batekin. " Hemen erne " izeneko poema-liburuaz epai-mahaiak azpimarratu zuen hizkera argia eta zehatza erabiltzeaz gain, nabarmentzekoa zela bere begiratu pertsonala . **Ekhñe Egigurenek** eta **Adriano Matak** merezimenduzko aipamenak jaso zituzten.

**Adriano Mata**, aurtan 2. mailako ikasle izan denak, bere aldetik, Oxfordeko unibertsitatean ikerketan aritzeko aukera topatu du. Beraz, IDAZLE ESKOLAKo proiektu gisara aurkeztuko duen gaiarekin lotutako ikerketa egngo du, alegia, Euskal herritik Ingalaterrara itsasoz errefuxiatuta joan ziren umeen historia ikertzeko.

Azkenik, **Karmelegartua Bengoaren Itsaso-kontra bat** lana Espainako Poesia Sari Nazionalako euskarazko testu hautatua izan zene. Horretarako Tere Irastortzak, Idazle Eskolako Itziar Gomezen eta Carmen Valoisen laguntzaz eta bere editore J.A. Irigarairenlaguntzaz, itzuli zuen liburua *Contra-mar* izenpean. Itzulpena [www.tereirastortza.com](http://www.tereirastortza.com) webgunean irakurdaiteke osorik.



## ILUNABAR LITERARIOAK eta IRAKURKETAK

ILUNABAR LITERARIO batekin amaitzen dugu ikasturtea urtero **Zumarragako** Santa Isabelako festetan.. Bergarako Idazle Eskolak 2007an antolatu zuen bere aurreneko Ilunabar literarioa **Zumarragan**. Harrez gero, urtean hamarren bat Ilunabar eta irakurraldi antolatu ohi du Euskal Herria osoan , aurtan gutxiago ibili bagara ere .

Joan den ikasturte amaierako **Zumarragakoak** izan zuen zerbait berezitik, **2012-13** ikasturtean ere **10. Urteurrena** ospatu baitu Idazle Eskola. Baina beste urte batzuetan ere gurekin izan diren idazleen liburu bana ere aurkeztu zuten Yoseba Peñak nobela, Hodeien adorea eta Ione Gorostartzuren poema liburua des-egiten, **2013ko** zitarako ere iritsiko gara **aldizkari** honen ale berriarekin eta **III KARMELE IGARTUA SORKUNTZA BEKA**ko irabazleen berri emanez.

Ikasturtearen atariko izan genuen Hondarribiko **BANAKO** tabernan Ainara Maiaren liburua eta gure **aldizkaria** aurkezteko parada. Irailaren 2an egokitu zen.

**KIRKILEN SOKA**n ere parte hartu zuten **IDAZLE ESKOLA**ko kideek.

Ione Gorostartzuren estreinako poesia liburuarekin eman zion hasiera **KIRKILEN SOKA**-ren laugarren **faseari**. Idazle berastegiarrak aurkeztuko zuen **Tolosan** azaroaren 15ean eta lan horretan Leire Zubeldia , kritikari eta Idazle Eskolako kidea izan zuen bidelagun. Bonberenea gaztetxean .

Euskal Herrian euskal liburugintzarako erreferentziazkoa gertatu den abenduok egunetan ere egin genuen aurtan aurreneko **aldiz**, **Oiartzunen** geure Ilunabar **Literarioa**. Bertan Idazle Eskolako kideez gain herriko beste idazle batzuk eta kantari batzuk ere hartu zuten parte. Olatz Mitxelena gidari izan genuen eta Xabier Lete izan genuen hizpide., **udal Aretoan**.

Aurretik, Idazle Eskoalren **10. Urteurrena** ospatzeko **Bergaran** sortu eta bizi izandako idazleen arrastoiari **lotuz** ezagutu genuen **herria**., azaroaren 10ean. Aurrena Jerardo Elortza ikerle eta irakasleak bergarako **Udal Aretoan** emandako hitzaldia izan genuen eta gero Monzonen etxeaz ezagutzeaz bat. beste idazle bergara batzuen berri ere jaso genuen ( Antero **Apaolaza**,**Koldo Elizalde**,**Ebarista Espinosa**,**Josu Oregi**,**Justo Garate**, **Peñaflorida** eta **Telesforo Monzon** ). Hainbat geraldian egin, eta geraldian horietan idazle hauen eta batez ere **Telesforo Monzonen** testuak irakurri eta bere hainbat kantu kantatu zen. Amaitzeko bazkari espeziala izan genuen, izan genuen.



## IDAZLE ETA LIBURU BERRIAK, IDAZLE ESKOLAKo ikasleek sortuak

Beste liburu askoren artean , Durangoko azoka aurkeztu ziren bereziki Idazle Eskolako bi kideren liburuak. Batetik **Maribel Aiertzaren** *Mara eta izar-saltzailea*, haur-literaturazko lana Ibaizabal argitaletxean. Aldez aurretik nobela ere argitaratua du Elkarren.

Bestetik **Ainara Maiaren** *Chansons d'amour. Ilargi beteko gauak*. Maiatz argitaletxeak argitaratu zuen A.Maiaren leen poema liburua.

Durangoko Azokaz kanpo , Isabel **Martinek** ere bere lehen liburua eman du argitara, kasu honetan gazteleraz. *Leyendas y otros relatos de tradición oral en la Zarza de Pumareda*.

**Ekhiñe Egigurenek** ere Pasaia Poesia sarian irabazle izan zen *Hirigrafiak eta pasaigramak* liburua argitaratu du.

Eta aditzera eman digunez, **Yoseba Peña** ere laister da Ibaizabalen bere bigarren nobela argitaratzeko, kasu honetan gaztetxoei zuzendutako nobela.

Baina horretaz gain , geure ikasleek argitaratzen dute hainbat **komunikabide** eta aldizkari-tan. **GARAko** eta **Berriako** literatur -kritikari asko Idazle Eskolako kide dira, joan den urtean uda osoan *Zazpika* aldizkariko narrazioak Idazle Eskolako ikasleenak ziren, eta aurten ere jarriko gara horretan.

Eta hor aritu gara jo eta ke *Beterriko Liburuan*, azken aleetan, bertan idatzi baitzuten **Itziar Gomezek**, **Maitane Legarretak.**, **Izaskun Etxeberriak** . . . .Eta noski, **ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ** aldizkarian ere hor izaten dira idazle Eskolakoek egindako narrazioak ere.

IDAZLE ESKOLAREN egiteko nagusia idazleak sortzea baita , eta ikasleei argitaratze-lanetara jotzeko tresnetan **trebatzea**.





### Adriano De Mata Aragoneses

1984ko abenduan Deustun (Bizkaia) jaioa eta 2002tik Deustutik desagertua: Gasteizen Itzulpengintza eta interpretazioa ikasi eta hizkuntzak, batez ere hizkuntza txikiak, gustuko izatea aitzakia aproposa denez, munduan hainbat tokitan bizi izan naiz orduetik. Itzulpengintzaren eta hizkuntza-irakaskuntzaren artean dantzan, orain idazle-gaia ere banaiz. Itzulpenen bidez besteek sortutakoa adierazteaz gain, nik neuk esateko dudana ere adierazteko.



### Alaitz Andreu Eizagirre

Alaitz (1986, Bilbo – 2004, Gasteiz - ...?)naiz eta mamia txikitu gabe intxaurrak hausteko mila modu probatu ditut. Balio, bakar batek ere ez. Eta ez zaizkidalako Eroskiko laborategiko horiek gustatzen jaten dut intxaurren mamia puska-puska eginda.

Batzuetan gertatzen zait, erabilitako indarra ondo neurtu ez edota intxaurren angelu okerrarekin asmatu ez dudanean, bat-bateko hegalarri ekiten diola zatiren batek. Eta lurra jotzen duela zakarrontzian sartzen ez bada. Bada, lurreratze ona duten horiek dira nire kutunenak.

Hitzekin ere gauza bera gertatzen zait.

### Amaia Artola Echeverria

Idazle eskolako 1. mailako ikaslea



### Ana Moñux

Ana dut izena ala Ana naiz, nire lehen zalantza Sarritan enigmatikoa; isiltasunaren maitalea. Ez beti ordea. Irekiagoa eusteaz nazkatzen naitzenetan eta berotasuna sumatzen dudanetan. Kontraesanek inbaditzen banaute ere, bene-lakotasunaren miresle sutsua nauzue. Bilatzera bultzatzen nauten desioa eta askatasuna dira ene gogoen zaindari; amesteko, sortzeko, irudikatze eta adierazteko borondatearen sostengatzaile. Bizitza sutzen dakiten dantzariet inguratzen saiatzen naiz; zorientasunera gerturatzeko bainaute. Hitzek ohi bezala. Nire plazetik handiena: sentitzea. Munduaz idatzi ohi dut; baita hitz egiteko autoritaterik egozten ez naizenetan ere. Eta momenturo aldatzen naiz.



### Araitz Jauregi Lejona

Bilbon jaio zen 1978an. Euskal Filologia ikasketak egin ditu, eta euskara irakasle aritu da orduetik. Gaur egun Arrasateko Udal Euskaltegian dabil lanean.



## Carmen Valois Nuñez

(1958ko Apirila)

Iruindarra bihotzez, zarauztarra halabeharrez. Informazio-Zientzietan lizentziaduna, Gizarte Lanean diplomaduna; lanbidez, gizarte langilea.

Jakin-mina izan da nire bizitzaren ardatza eta iparorratza. Bilaketa horretan, Idazle Eskolara hurbildu nintzen zerbait berria ikasteko **asmoz** eta. **hor sartzearekin** batera, unibertso berria zabaldu zen nire aurrean, ikasteaz haratago, bizitzearekin ezinbesteko lotura estua duena. Era berean, irakurle **amorratua** naizen aldetik, literatura beste ikuspegitik ezagutzeko aukera paregabea eman dit edo, hobeto esanda, eguneroko **bizimodu** arrunta beste modu batez irudikatzeke aitzakia.



## Eneritz Iraola Odriozola

daztea afizio eta ofizio. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatua, zenbait euskal hedabideetan ari naiz kazetari eta kolaboratzaile anetan. Betidanik narrazio **labur** eta poesia zalea, azken boladan haur literaturan ere sartu-irtenean nabil. Estalita dauden ispiluek zer ezkutatzen duten jakin nahian bizi naiz. Hori argitzeko bidean, idazluma dut bide lagun.



## Idoia Gereñu

Haundiak txiki eta txikiak haundi gertatu izan zaizkit beti. Errazak zail eta zailak erraz izaten jarraitzen du... Halakoxea naiz, perfekzio erraldioen atarian perfekzio txikiaren labirintoan galditzen den txoria. Perfekzioen bilaketa eremuan beti ere, baina txoria.

Gorroto dut aspertzea, gutxitan aspertzen naizen arren'

Gorroto dut nagikeria, sarritan harrapatzen nauen arren.

Zuri eta beltzaren arteko borroka, huraxe naiz. Naiz, edo hala sentitzen naiz!



## Haizea Galarraga

3izitzan kasualitateak gutxi dira. Normalean denak du **arrazoi**, jatorri edota azalpenen bat. Mire izena Haizea izatea ere ez da kasualitate hutsa; nire izaera aztertuz ikus baitaiteke zoragarri datorkidala! Haize bolada ikaragarri baten antzekoa naiz, nortasun handikoa eta odolbe-  
'oa oso.

Nire bitzta liburu ireki bat da, kapitulu anitzez osatua dagoena. Aurreko kapituluan Lehen Hezkuntzako irakasle bihurtu nintzela irakurri nuen. Orain Euskal Filologiako master bat ikasten dudala dio liburuak, skolan gozatzen dudantartean. Eta bihar zer? Pixkana joango da sortzen liburuxka eta **momentuz**, zain egongo naiz, hurrengo pasartea noiz idatziko den zain.



**Miren Usandizaga**

Nerabezaroan hasi nintzen nire mundua orri zurietan isurtzen.

Hala egiten jarraitzen dut.

Neu idazle eta neu irakurle.

Helburua? Hausnartzea, ulertzea, asmatzea...

Ispiluek irudiekin jolasten duten modura jolasten dute ene hitzek nirekin.



**Miryan Irastorza San Vicente**

1982, Legazpiar gasteizartua.

Mor naiz ni? Emakumea, filologoa, irakaslea, garagardozalea, txikia, Hala Bedi irratiko kidea, lagun-en laguna, ipurtarina, irakurle amorratua...

Horietako bakoitzetik, behintzat, badaukat zerbait (eta aipatu ez ditudan beste askotatik ere bai). Laburrean deskribatzerik ez dut, erantzunaren bila ari bainaiz oraindik.



**Olatz Mixelena**

Oiartzunen jaio nintzen duela 24 urte. Filosofia ikasketak egin nituen eta egun irakasle lanetan nabil.



**Ruth Martin Apezetxea.**

Hernaniarra.

Arte Dramatikoko ikasketak burutu zituen.

Haur nahiz helduentzako antzerki tailerrak zuzentzen ditu.



**Unai Baztarrika Otegi**

Beasain, 1982

Injineru informatikoa ikasketaz eta ofizioz.

Berrito, idatzi eta irakurtzeaz gosetu den idazle eskolatu berria.

Bere mugak deusezten diharduena.



**Zuriñe Zubillaga**

Irundarra. Haur Hezkuntzako irakaslea ofizioz, idazlea afizioz.



# Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa



## GRADUONDOKOAK

- Idazle Eskola
- Eusko Ikasgaiak
- Hizkuntza Plangintza
- GNU/Linux - Software Librea
- Emakume eta gizonen berdintasunaren gaineko masterra

## ETENGABEKO PRESTAKUNTZA

- Haurrak eta musika: ikasten eta irakasten
- Eskola kiroleko monitoreak





## UDA HONETAN

Idazle Eskolako ikasleen lanak  
igandero **7K-an**, **GARA**-ren aldizkarian



PDF Editor

Euskal herrian eta euskal herrirako egindako igandekari bakarra